

EUSKADIKO EMAKUME ETA GIZON GAZTEEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

1. TOMOA



EMKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDIA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKADIKO EMAKUME ETA GIZON GAZTEEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2005

IZENBURUA (Lan osoa):	"Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak"
IZENBURUA (1. Tomoa):	Euskadiko emakume eta gizon gazteen egoerari buruzko zifrak"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
AUTOREAK:	Arantxa Elizondo Lopetegi, Eva Martínez Hernández, Ainhoa Novo Arbona, Felix Arrieta Frutos. Genero Azterlanen taldea. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Politika eta Administrazioa Zientzien Saila
IRUDI DISEINUA ETA MAKETAZIOA:	Ana Rincón
ILUSTRATZAILEA:	Iñigo Ordozgoiti
DATA:	2005eko maiatza
ALE-ZENBAKIA:	1.300
DESKRIBATZAILEAK (Lan osoa):	Emakumeen egoera, gazteak, helduak, adinekoak, partaidetza politikoa, datu estatistikoak
DESKRIBATZAILEAK (1. Tomoa):	Emakumeen egoera, gazteak, datu estatistikoak
INPRIMAKETA:	Gráficas Santamaría. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN (Lan osoa):	84-87595-04-9
ISBN (1. Tomoa):	84-87595-05-7
LEGE GORDAILUA:	VI-198/05

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. SARRERA	11
2. BIZTANLERIA GAZTEA EUSKADIN	17
3. HEZKUNTZA	25
3.1. Eskolatzea eta ikasketa-maila	27
3.2. Unibertsitateko ikasketak	38
4. EMANTZIPAZIOA	45
4.1. Enplegua	47
4.2. Etxebizitza	54
5. GAUR EGUNGO EGUNEROKO BIZIMODUA:	59
5.1. Denboraren erabilera	61
5.2. Teknologia berriak	67
6. GAZTEEN JARRERAK ESPARRU PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN	71
6.1. Jarrera politikoak	73
6.2. Sexualitatearekiko jarrerak	79
7. INDARKERIA ETA BELDURRA	87
8. OSASUNAREN GAINEKO ARRISKUAK	95

AURKEZPENA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, hone-laxe definitzen du aukera-desberdintasuna: emakumeek eta gizonek eskubide politi-koak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitor lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin baliatzea, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne.

Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, gaur egun nazioarte-mailan egokienentzat jotako bi printzipio edo estrategia osagarriak definitzen ditu: genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa. Printzipio horiek aplikatzeak ekarriko du emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ez-berdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jar-duketa zehatzak txertatzea.

Aurrekoa lortzeko beharrezkoa da, besteak beste, sexukako estatistikak izatea. Izan ere, haien bidez zehatzago ezagutuko dira kolektibo bakoitzaren egoera, genero-harremanak eta berauek oraindik gure gizarte-ereduaren ezaugarri den eta sexuaren arabera hierarkizatutako gizarte-antolaketaren mantenimenduan eta eraikuntzan duten papera.

Datuak ere sentsibilizazio sozialerako baliabide indartsu dira errealitatearen eta gure inguru hurbilenean imajinatu edo antzemandako egoeraren arteko distantzia eta al-dea erakusten baitituzte. Pertzepzio hori hainbat diskurtso sozialetan adierazi eta de-siratutako egoeratik hurbil dago, teorikoki behintzat. Datuek berdintasunaren espe-jismoa deritzona ezabatzen dute. Distantzia horren kontzientzia pertsonala eta soziala beharrezko elementuak dira botere publikoen ekintza positiborako politikak ezartzea onartzeko. Politikok, batzuetan, ondoen dagoen kolektiboak, kasu honetan gizonezkoek, eskubide eta aukeren murrizketatzat hartzen du, gizarte osoaren onu-ratzat baino. Desberdintasunen kontzientzia sozialak exijitu eta, aldi berean, ahalbi-

detzen du ekintza politikoa. Halaber, lortu nahi den ereduranzko jokabide pertsonalen eta sozialen aldaketa sustatzen du.

Emakundek 1991.urtean argitaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen egoerari buruzko lehenengo txostena. Harrezkero, urtero, datuak eguneratuz eta esku hartzeko sektore edo arloei buruzko informazioa sartuz joan da, administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurrien garapenean eta konpromisoan izandako aurrerapenari esker. Horren isla dira orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hiru ekintza positiboko planen urteko ebaluazioak eta ebaluazio globalak. Aurreko guztiak sexu-aldagaia estatistika-eragiketetan zein gure administrazioetako eskumeneko sailek eta atalek egindako ikerketetan sartzeari ahalbidetu du.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari aurkeztu eta hainbat komunikabideren bidez -hitzaldiak, artikulatuak, web-orriak, e.a.- zabaltzeko dira. Horietariko bat, paper-euskarridun argitalpena edo liburua, Euskadiko emakumeentzako ekintza positiboko plan bakoitzarekin batera erabili da. Orain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea egitearekin eta onartzearekin batera, beste argitalpen hau aurkezten dugu hiritarrek Legearen beraren edukiak ulertzen eta botere publikoek benetan aplikatzen lagunduko duelakoan.

Txostena, nagusiki, ikuspegi kuantitatibo batetik egin da, eta bizitzaren etapak -gaztaroa, helduaroa, 3. adina- hartu ditu oinarritzko erreferentzia, kolektibo bakoitzaren egoera espezifikoak bereizteko eta aztertzeko. Txostenaren osagarri gisa, politika-arloan emakumeek duten parte-hartzeari buruzko analisi espezifiko bat dator. Ez ditu bete nahi arestian aipatutako Legeak planteatutako estatistikak hobetzeko eskakizun guztiak, eta, zentzu honetan, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoera eza-gutzeko ekarpen garrantzitsutzat, baina partzialtzat hartu behar da. Izan ere, eza-gutza horren alde kuantitatiboetan zein kualitatiboetan sakontzen jarraitu beharko da.

Berdintasunaren kontzeptuak, ezbairik gabe, biei egiten die erreferentzia. Ikuspegi kuantitatibotik, emakumeen eta gizonen banketa berdina, %50 ingurukoa, litzateke gizarte, hezkuntza, lan, aisialdi eta boterearen arlo guztietan. Ikuspegi kualitatibotik, eremu publikoan zein pribatuan norberaren gaitasunak garatzeko eta erabakiak hartzeko askatasunari egiten dio erreferentzia, batetik; eta bestetik, emakumeen eta gizonen ezagutzak, baloreak, ekarpenak eta esperientziak, jokabideak, jomugak eta beharrianak berdin balioesten eta sustatzen dituen gizarteari.

Berdintasuna lortzea XXI. mendearen lehenengo urte hauetan, oraindik ere, benetako erronka da munduko herrialde guztientzat, salbuespenik gabe. Argitalpen honek erronka horri tresna onekin, eta profesionaltasunik eta gogorik handienekin aurre egiten laguntzea espero dugu.

A handwritten signature in blue ink, reading 'Txaro Arteaga'. The signature is enclosed within a large, loopy oval shape, with a long, wavy line extending from the bottom of the oval.

TXARO ARTEAGA ANSA

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1

SARRERA

Azken urteetan areagotu egin da Herri Administrazioek xede duten gizarte-errealitatea ezagutzeko agertutako interesa. Horrela, gizarte-errealitatea aztertzeke ikuspegiak aniztu egin dira eta gero eta korapilatsuagoak dira eta, ondorioz, azterketa zehatzagoak eta sofistikatuagoak egiten dira. Azken helburua da gizartea osatzen duten taldeei erantzuteko politika publiko eraginkorragoak garatzen laguntzea. Hain zuzen, azterketen politikak izandako garapenaren isla zuzena da gizarteko sektore jakin batzuk berariaz aukeratu eta horien bizimodua eta izan ditzaketen berariazko behar eta eskariak ezagutzeko egiten diren azterketak. Eta gizartea ikertzeko jarduera publikoaren baitan, Emakundek urtero lantzen ditu Euskadiko emakume eta gizonen egoerari buruzko txostenak; txosten horietan gizarteko hainbat esparrutako adierazleak erabiltzen dira eta helburu bakarra dute, sexuen arteko desberdintasunak antzemateko eta ikusteko bitarteko egokiak eskaintzea alegia. Aurten landu den azterlana diseinatzeko orduan aldagai berri bat barne hartu da: adina. Datuak adinaren arabera xehatuz hobeto ezagutuko dugu Euskadiko gizarte-errealitatea, izan ere, emakume eta gizonen bizi-baldintzak gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan ezagutzeko aukera eskaintzen digu adinaren arabera bereizketak.

Hirurogeiko hamarkadaren amaiera aldera hasi ziren erakundeak gazteriari buruzko azterlanak egiteko beharra eta interesa azpimarratzen, batez ere jarduera publikoaren baitan egiten ziren azterlan soziologikoen ezarpen orokorraren ondorioz. Hala ere, hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadara arte, Herri Administrazioek ez zituzten antolatu gazteria xede zuten sailak eta erakundeak —eta horrek eragin handia izan du esparru honetan egindako azterlanen garapenari erreparatuz. Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE aurrerantzean), Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gazteriari buruzko lehenengo berariazko azterlana landu zuen 1986an, eta 1990 eta 1994an antzekoa azterlan gehiago egin zituen. Ondoren, 1997an, Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoetako Kabineteak pertsona gazteei buruzko txosten soziologikoak aldiro lantzeari ekin zion, Gazteen argazkiak, hain zuzen. Aipatutako azterlan guztietan hainbat alderdiri buruzko datuak barne hartu dira; datu horiek alderatze-

ko aldagaiak zehaztu dira eta horren arabera euskal gazteriaren ezaugarri nagusiak ezagutuko ditugu (1).

Lehenik eta behin, gazteriaren kontzeptua bera mugatu behar da. Ikuspegi soziologiko batetik, funtsezkoa da kontzeptu kronologikoa edo biologikoa gainditzea —horren arabera, heldutasunera iritsi ez den pertsona oro gazte da, beti ere gaztetasuna heldutasunera igarotzeko fase eta kategoria gisa ulertuta—. Zentzu horretan, ego-kiagoa da gazteria esatean berariazko ezaugarri jakin batzuk eta bizimodu heterogeneoak dituzten pertsonak osatutako taldea ulertzen badugu. Definizio bakar bat ez badago ere, kontzeptua mugatzeko zera esan daiteke: gazteria beti ulertu izan da etorkizunaren adierazpen gisa, hots, gazteriak gizartean bete beharreko funtzio nagusia belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzea da. Horrela, gazteriak garrantzi handia duela diogu, bizirauteko bermearen potentziala eta etorkizuneko gizartearen oinarria delako (2).

Gazteria bereizteko irizpide nagusia adina da, nahiz eta oraindik ez den lortu adostasunik etapa horrek irauten duen denbora mugatzeko orduan. Nazioarteko ikuspegi batetik, Nazio Batuek emandako definizioak dioenez, 14-25 urte bitartera luzatzen den aldira mugatzen da gazteria (3). Antzeko irizpide baten arabera, Europar Batasunak 15-25 urte bitartera luzatzen den aldia bezala definitu du gazteria (4). Espainiako Gazteria Kontseiluaren arabera, pertsona gazteak 13 eta 29 urte bitarteko pertsonak dira. Amaitzeko, EAEko Gazte Planaren arabera, gazte kontzeptua aldatu egiten da sailkapenaren helburuaren arabera, hortaz, unean lantzen den gaiaren ara-

(1) Eusko Jaurilaritza. 2000. *Euskal gazteria 2000*, 17. or.

(2) Eusko Jaurilaritza. 2003. *EAEko asoziazionismoari buruzko Liburu Zuria*, 16. or.

(3) Theunissen, Joop. 2003. "Young people in global society: a perspective from United Nations" *Gazterien politikei buruzko Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako txostena*, Bilbo, 2003ko martxoa.

(4) Europako Erkidegoen Batzordea. 2001. *Europako Batzordearen liburu zuria – bultzada berria euskal gazteriarentzat*.

bera alda daitekeen kontzeptutzat jotzen da (5). Horren arabera, ezinezkoa da gazteria hasiera eta amaiera zehatzak dituen etapa moduan objektiboki definitzea. Aitzitik, kontzeptu abstraktua eta unibertsala da, baina berau zehazteko testuinguru historiko eta sozial jakin batean kokatu behar da. Hain zuzen, orain aurkezten dugun koaderno honetan kontuan hartu da esan berri duguna eta, beraz, adinaren mugak aldatu egiten dira adierazle bakoitza lortzeko erabilitako iturriaren arabera, nahiz eta, oro har, gehienezko muga 30 urtetan zehaztu den.

GAZTERIAREN DEFINIZIOA

Nazio Batuak	14-25 urte
Europar Batasuna	15-25 urte
EAEko Gazte Plana	13-29 urte

Ondorengo orriotan gazteek Euskadin bizi duten egoerari buruzko datuak ageri dira eta nesken eta mutilen arteko desberdintasunak bereizi dira. Xede horrekin, esparru desberdinetako hainbat adierazle erabili dira, hala nola: demografia, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, denboraren erabilera, teknologia berriak, parte-hartze sozio-politiko, sexualitatea, indarkeria eta beldurra eta osasunaren arriskuak. Aipatutako informazio guztia hainbat erakunde autonomikok eta estatukok —Eustat, Egailan, INE, INEM, Gazteriaren Behategia eta Osakidetza— egindako estatistika ofizialetatik hartu da, bai eta Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gazteria Kontseiluak gazteriaren inguruan berariaz egindako txostenetatik ere.


(5) Eusko Jaurlaritzak. 2003. *EAEko Gazte Asoziazionismoaren Liburu Zuria*, 15. or.

2

BIZTANLERIA GAZTEA EUSKADIN

Lehenengo atal honetan Euskadiko pertsona gazteen ezaugarri demografiko nagusiei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da; ikuspegi orokor hori azken 2001 Biztanleria eta Etxebizitza Errolda txosteneko datuetatik abiatuta landu da. Kopuru absolutuei erreparatuz, 683.637 pertsona gazte daude EAEn (30 urtetan jarri da muga). Horrela, gazte-taldearen pisu erlatiboa kontuan hartuta, Euskadiko biztanleria guztiaren herena dira gazteak. Emakumeen kasuan, 0-29 adin-taldean sailkatzen dira guztien %31,2, eta gizonen kasuan, berriz, %34,5. Bestalde, sexuaren arabera, zertxobait gehiago dira gizonak: %51 inguru gizonak dira eta %49 inguru emakumeak.

2.1. GRAFIKOA. Biztanleria gaztearen proportzioa (0-30 urte) Euskadiko Autonomia Erkidegoko biztanleriaren guztiarekiko. 2001



ITURRIA: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak 2001.

2.1. TAULA 0-29 urteko biztanleria bost urteko taldetan. Portzentaje horizontalak. 2001

	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	ABS.	ABS.	%	ABS.	%
0-4	84.329	40.943	48,6	43.386	51,4
5-9	77.802	37.729	48,5	40.073	51,5
10-14	84.672	41.453	49,0	43.219	51,0
Guztira 0-14	246.803	120.125	48,7	126.678	51,3
15-19	108.224	52.576	48,6	55.648	51,4
20-24	151.909	74.036	48,7	77.873	51,3
25-29	176.701	85.866	48,6	90.835	51,4
15-29 guztira	436.834	212.478	48,6	224.356	51,4
0-29 urte guztira	683.637	332.603	48,7	351.034	51,3
Biztanleria guztira	2.082.587	1.064.704	51,1	1.017.883	48,9

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Biztanleria gaztearen baitan bereizketa dikotomikoa egin daiteke; horrela, bi adin-talde bereiziko lirateke, nolabait haurtzaroarekin eta gaztaroarekin bat datozenak. Lehenik eta behin, haurtzaroari erreparatuz, EAEn 246.803 dira 15 urte baino gutxiago dituzten pertsonak. 0-15 urte bitartean dituzten pertsonen proportzioa sarritan erabiltzen den adierazle bat da eta herrialde baten gazteen potentziala islatzeko balioko du. Gazteria Indizea izenarekin ezagutzen da. Adin-tarte horrek duen pisu proporzionala 0-29 adin-tartearena baino mugatuagoa da, izan ere, gaur egun biztanleria osoarekiko %12,8ko pisua du (%12,1 emakumeen kasuan eta %13,4 gizonen kasuan). Azken 25 urteotan Gazteria Indizeak izandako bilakaerari erreparatuz, 15 puntuko gutxitzea izan dela ikusten da, hain zuzen, %27,9 izatetik gaur egungo %12,8ra. Nesken eta mutilen arteko banaketa bat dator 0-29 urteko biztanleriaren jo-kaerarekin; horrela, zertxobait gehiago dira gizonak emakumeak baino.

2.2. TAULA Gazteria Indizearen bilakaera.* 1975-2001

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
1975	27,9	26,9	28,9
1981	25,7	24,7	26,7
1986	21,8	20,9	22,7
1991	17,2	16,5	18,3
1996	13,6	12,9	14,2
2001	12,8	12,1	13,4

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko estatistikak

*Gazteria Indizea: 0-15 urteko biztanleriaren portzentajea biztanleria guztiarekiko.

Bigarrenik, beste taldean (15-29 adin-tartea), guztira 436.834 pertsona sartzen dira, hau da, biztanleriaren guztizkoaren %20,9. Datuok ikusita, argi geratu da gazteek hurrek baino agerpen handiagoa dutela EAEko biztanleria-egituran. Orain xede dugun talde horretan, lehen ere aipatu dugun joera ikus daiteke, hots, gehiago dira mutilak: %51,4 mutilak eta %48,6 neskak.

Estatistiken interpretazioa aberasteko eta osatzeko lagungarria izaten da bestelako testuinguru batzuetatik hartutako datuak erabiltzea. Guri dagokigunez, beste Autonomia Erkidegoetako adierazleak erabiliko ditugu gure informazioa osatzeko. Horrela, EAEn 30 urte baino gutxiago dituzten pertsonen ehunekoa gainerako Erkidegoena baino baxuagoa da. Galizian antzeko proportzioa erregistratu da baina Nafarroan eta Katalunian, ordea, altuagoak dira erregistratutako ehunekoak, hain zuzen ia 2 eta 3 puntu gehiago hurrenez hurren. Andaluzia da EAetik urrutien sailkatu den autonomia-erkidegoa (bertako biztanleriaren ia %43k 30 urte baino gutxiago dute).

2.3. TAULA Biztanleria gaztearen proportzioa (0-29 urte) zenbait Autonomia Erkidegotan. 2001

AUTONOMIA ERKIDEGOA	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Euskadi	34,50	36,23	32,85
Nafarroa	36,46	35,02	36,45
Katalunia	37,23	35,49	39,03
Galizia	34,82	32,93	36,87
Andaluzia	42,92	41,27	44,63

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Taulan adierazitako datu guztiak EAEko biztanleriak, adinaren arabera sailkatua, duen dinamika demografikoarekin daude erlazionatuta. Zentzu horretan, EAEn, inguruko herrialde garatu gehienetan bezalaxe, gero eta zaharragoa da biztanleria eta jaiotza-tasa eta heriotza-tasa baxuak dira.

EAEko biztanleria atzerritarrari dagokionez, adinen araberrako banaketaren eta gazte-taldearen pisu erlatiboaren ezaugarriak aldatu egiten dira. Bereziki azpimarragarria da, zentzu horretan, biztanleria atzerritarraren artean %45,25ek 30 urte baino gutxiago dituztela. Gazte-taldearen baitan, 10.000 baino gehiago dira 15-29 urte bitarteko gazteak, hau da, 30 urtetik beherakoen %71,6. Datu horiek oso desberdinak dira EAEn 15-29 urte bitarteko gazteak biztanleria osoaren %20,9 direla kontuan hartuta. Jakina, biztanleria atzerritarraren adin-egitura askoz ere gazteagoa da, izan ere, gehienak beste herrialde batetik lan egitera etorritako pertsona gazteak dira. Bestalde, biztanle atzerritarren artean haurren proportzioa ez da gehiegi aldatzen (15 urtetik beherako pertsonak), Gazteria Indizea biztanleriaren guztizkoaren indizearekin bat datorrelako: %12,8

— EAEko biztanleria guztitik %20,9 pertsona gazteak dira.
— Biztanleria atzerritarraren %45,25ek 30 urte baino gutxiago dituzte.

Amaitzeko, gazte-taldeak sexuen arabera duen banaketari dagokionez, nahiko banaketa orekatua dela esan daiteke, eta biztanleriaren guztizkoarekiko desberdintasun bakarra da gizonak gehiago direla, baina 19 urtera bitarteko taldean bakarrik; 19 urtetik aurrera, egoera aldatu egiten da eta gutxiago dira gizonak (puntu bateko aldea).

2.4. TAULA Biztanleria atzerritarra adinaren arabera (bost urteko multzoak) eta sexuaren arabera, portzentaje horizontaletan. 2001

ADINA, URTETAN	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
		ABS.	%	ABS.	%
0-4	1.049	523	49,9	526	50,1
5-9	1.345	664	49,4	681	50,6
10-14	1.605	782	48,7	823	51,3
0-14 urte guztira	3.999	1.969	49,2	2.030	50,8
15-19	1.841	877	47,6	964	52,4
20-24	3.565	1.853	52,0	1.712	48,0
25-29	4.689	2.363	50,4	2.326	49,6
15-29 urte guztira	10.095	5.093	50,5	5.002	49,5
0-29 guztira	14.094	7.062	50,1	7.032	49,9
Biztanleriaren gaineko %	%45,25	%44,76		%45,68	
Biztanleria guztira	31.168	15.777	50,6	15.391	49,4

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

3

HEZKUNTZA

Gure gizartean funtsezko esparrua dugu hezkuntza: gure gizarteko oinarrizko elementu bat da, berari esker lor baitaiteke aurrerapen sozio-ekonomikoa; eta oinarrizko elementu bat da, halaber, herritarren garapen pertsonalerako lagungarria delako. Horrexegatik, hain zuzen, garrantzi berezia bereganatzen du hezkuntza-esparruak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lantzeko eta lortzeko bitarteko gisa. Gizabanako ororen bizi-etapen baitan, funtsezkoa da hezkuntza Euskadiko haur eta gazteen errealitatea ezagutzeko.

ESKOLATZEA ETA IKASKETA-MAILA 3.1

Biztanleriaren eskolatzeari neurtzeko irakaskuntza-maila eta irakaskuntza-mota orotan izandako matrikulazioak hartuko dira kontuan. Ildo horretan, jasotako datuen arabera, 2002/2003 ikasturtean 426.530 ikaslek osatzen zuten EAEko ikasleen bolu-mena: horietatik %58 ikastetxe publikoetan matrikulatutakoak eta %42 ikastetxe pribatuetan. Irakaskuntza orokorra bereizten duten lau etapetatik (haurrezko hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta goi-mailakoa) lehenengo bitan nahiko parekoak dira sexuen arteko proportzioak, banaketa demografiko errealekin bat eginez (gutxi batzuk gehiago dira mutilak). Hala ere, bigarren hezkuntzako azken zatian nabarmenagoa da bi taldeen arteko aldea. Batxilergoari dagokionez, neskak dira guztizkoaren %53,2, eta Lanbide Heziketan, aitzitik, gehiago dira mutilak, batez ere erdi-mailako ikasketetan eta zereginen ikaskuntzan (gustizkoarekiko %63,5 eta %61,6 hurrenez hurren).

— Erdia baino zerbaite gehiago neskak dira Batxilergoan.
— Erdi-mailako Lanbide Heziketan %63,5 mutilak dira.

Laugarren etapan, hots, goi-mailako irakaskuntzan, azken urteotako joerarekin bat egin da oraingoan ere; horrela, gehiago dira emakumeak gizonak baino (9 puntu gehiago): %54,6 emakumeak eta %45,4 gizonak. Amaitzeko, erregimen bereziko irakaskuntzei dagokienez (arteak eta ofizioak, hizkuntza, musika eta dantza), nabarmenagoa da bi sexuen arteko aldea, eta ikasle guztien %69,4 emakumeak dira.

3.1. TAULA Irakaskuntza guztiak. Ikasleak, titulartasunaren eta mailaren arabera, eta sexuaren arabera, kopuru absolututan eta portzentaje horizontaletan. 2002/2003

		GUZTIRA		EMAKUMEAK		GIZONAK
		ABS.	%	ABS.	%	
Ikastetxe guztiak	426.530	218.784	51,3	207.746	48,7	
Erregimen orokorreko irakaskuntza	395.486	197.254	49,9	198.232	50,1	
Haur-hezkuntza	63.980	30.646	47,9	33.334	52,1	
Hezkuntza berezia (haur-hez.)	63	19	30,2	44	69,8	
Lehen hezkuntza	97.139	46.747	48,1	50.392	51,9	
Hezkuntza berezia (lehen hez.)	341	133	39,0	208	61,0	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	74.147	35.777	48,3	38.370	51,7	
Hezkuntza berezia (DBH)	172	74	43,0	98	57,0	
Helduen etengabeko hezkuntza	18.372	11.529	62,8	6.843	37,2	
Batxilergoa	34.469	18.334	53,2	16.135	46,8	
Erdi-mailako LH	11.203	4.086	36,5	7.117	63,5	
LH goi-maila	18.626	7.918	42,5	10.708	57,5	
Zereginen ikaskuntza	385	148	38,4	237	61,6	
Unibertsitateko ikasketak	76.589	41.843	54,6	34.746	45,4	
2 zikloko unibertsitateko ikasketak	43.123	24.796	57,5	18.327	42,5	
2. zikloko unibertsitateko ikasketak	3.597	1.762	49,0	1.835	51,0	
1. zikloko unibertsitateko ikasketak	27.477	14.075	51,2	13.402	48,8	
3. zikloko unibertsitateko ikasketak	2.392	1.210	50,6	1.182	49,4	
Erregimen bereziko irakaskuntzak	31.044	21.530	69,4	9.514	30,6	
Arteak eta ofizioak	668	474	71,0	194	29,0	
Hizkuntzak (matrikula ofiziala)	27.469	19.184	69,8	8.285	30,2	
Musika (matrikula ofiziala)	2.850	1.818	63,8	1.032	36,2	
Dantza	57	54	94,7	3	5,3	

3.1. TAULA Irakaskuntza guztiak. Ikasleak, titulartasunaren eta mailaren arabera, eta sexuaren arabera, kopuru absolututan eta portzentaje horizontaletan. 2002/2003 (jarraipena)

		GUZTIRA		EMAKUMEAK		GIZONAK
		ABS.	%	ABS.	%	
Ikastetxe publikoak	247.415	131.034	53,0	116.381	47,0	
Erregimen orokorreko irakaskuntzak	218.225	110.748	50,7	107.477	49,3	
Haur-hezkuntza	32.374	15.440	47,7	16.934	52,3	
Hezkuntza berezia (haur-hez.)	11	3	27,3	8	72,7	
Lehen hezkuntza	45.199	21.603	47,8	23.596	52,2	
Hezkuntza berezia (lehen hez.)	73	27	37,0	46	63,0	
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	30.662	14.555	47,5	16.107	52,5	
Hezkuntza berezia (DBH)	83	38	45,8	45	54,2	
Helduen etengabeko hezkuntza	17.657	10.881	61,6	6.776	38,4	
Batxilergoa	18.822	10.477	55,7	8.345	44,3	
Erdi-mailako LH	6.587	1.990	30,2	4.597	69,8	
LH goi-maila	8.542	3.521	41,2	5.021	58,8	
Zereginen ikaskuntza	242	99	40,9	143	59,1	
Unibertsitateko ikasketak	57.973	32.114	55,4	25.859	44,6	
2 zikloko unibertsitateko ikasketak	33.532	19.374	57,8	14.158	42,2	
2. zikloko unibertsitateko ikasketak	2.336	1.178	50,4	1.158	49,6	
1. zikloko unibertsitateko ikasketak	20.090	10.526	52,4	9.564	47,6	
3. zikloko unibertsitateko ikasketak	2.015	1.036	51,4	979	48,6	
Erregimen bereziko irakaskuntzak	29.190	20.286	69,5	8.904	30,5	
Arteak eta ofizioak	209	151	72,2	58	27,8	
Hizkuntzak (matrikula ofiziala)	27.469	19.184	69,8	8.285	30,2	
Musika (matrikula ofiziala)	1.466	907	61,9	559	38,1	
Dantza	46	44	95,7	2	4,3	
Ikastetxe pribatuak	179.115	87.750	49,0	91.365	51,0	
Erregimen orokorreko irakaskuntza	177.261	86.506	48,8	90.755	51,2	
Haur-hezkuntza	31.606	15.206	48,1	16.400	51,9	
Hezkuntza berezia (haur-hez.)	52	16	30,8	36	69,2	
Lehen hezkuntza	51.940	25.144	48,4	26.796	51,6	
Hezkuntza berezia (lehen hez.)	268	106	39,6	162	60,4	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	43.485	21.222	48,8	22.263	51,2	

3.1. TAULA Irakaskuntza guztiak. Ikasleak, titulartasunaren eta mailaren arabera, eta sexuaren arabera, kopuru absolututan eta portzentaje horizontaletan. 2002/2003 (jarraipena)

		GUZTIRA		EMAKUMEAK		GIZONAK	
		ABS.	%	ABS.	%		%
Hezkuntza berezia (DBH)	89	36	40,4	53	59,6		
Helduen etengabeko hezkuntza	715	648	90,6	67	9,4		
Batxilergoa	15.647	7.857	50,2	7.790	49,8		
Erdi-mailako LH	4.616	2.096	45,4	2.520	54,6		
LH goi-maila	10.084	4.397	43,6	5.687	56,4		
Zereginen ikaskuntza	143	49	34,3	94	65,7		
Unibertsitateko ikasketak	18.616	9.729	52,3	8.887	47,7		
2 zikloko unibertsitateko ikasketak	9.591	5.422	56,5	4.169	43,5		
2. zikloko unibertsitateko ikasketak	1.261	584	46,3	677	53,7		
1. zikloko unibertsitateko ikasketak	7.387	3.549	48,0	3.838	52,0		
3 zikloko unibertsitateko ikasketak	377	174	46,2	203	53,8		
Erregimen bereziko irakaskuntzak	1.854	1.244	67,1	610	32,9		
Arteak eta ofizioak	459	323	70,4	136	29,6		
Hizkuntzak (matrikula ofiziala)	.	.	0,0	.	0,0		
Musika (matrikula ofiziala)	1.384	911	65,8	473	34,2		
Dantza	11	10	90,9	1	9,1		

ITURRIA: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzari buruzko estatistika.

Bestalde, Hezkuntza Bereziaren esparruan egindako estatistiketan, pertsona hartzailearen ezintasunaren arabera egin da hezkuntza-arretaren sailkapen, hala nola: ikusmen-ezintasuna, entzumen-ezintasuna, ezintasun psikikoa, mugitzekoa, urritasun anitzak, emozio-mailako arazoak eta autismoa. 2002/2003 ikasturtean 576 ikaslek osatu dute EAEn eskainitako mota horretako hezkuntza. Gehiago dira mutilak neskak baino (%60,8 mutilak eta %39,2 neskak) eta egoera hori errepikatu egiten da haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan; guztietan %60 baino gehiago mutilak dira. Edozein modutan, oso ikasle gutxi direla kontuan hartuta, zaila da sexuen arabera proportzioei buruzko ondorio argigarriak lortzea.

Matrikulazioekin esandakoa errepika daiteke eskolatzearen tasa garbiei erreparatuz (maila eta adin-talde bakoitzean matrikulatutako ikasleen eta aipatuta adin-taldeko biztanleen arteko erlazioa); horrela, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan parean geratu dira neskak eta mutilak, nahiz eta bigarren hezkuntzan gauzak aldatu: 12-17 urteko taldean batxilergoko eskolatze-tasa 26,4 da neskentzako eta 20,9 mutilentzako. 18-21 urteko taldean, bestalde, lanbide-heziketako eskolatze-tasa 9,9 da mutilen kasuan eta 5,9 nesken kasuan. Unibertsitateko ikasketei erreparatuz, are nabarmenagoak dira desberdintasunak: 18-21 urte bitartean (unibertsitatera sartzeko adina), 43,4ko tasa dute neskek eta 28,1ekoa mutilek. Kontuan hartu behar da desberdintasun hori nabarmenki gutxitu egiten dela 22-25 urteko taldean; horrela, 20ko tasa dute mutilek eta 23koa neskek. Litekeena da horren arrazoia izatea neskek gehiago aukatzen dituztela karrera laburrak (diplomaturak).

3.2. TAULA Eskolatzeta-tasa garbiak (1) maila eta sexuaren arabera, eta adin-taldearen arabera (%). 2002/2003

	2-5 URTE	6-11 URTE	12-17 URTE	18-21 URTE	22-25 URTE	26-29 URTE
GUZTIRA	98,8	102,7	96,3	64,4	27,3	8,7
Gizona	100,4	103,4	95,5	60,7	26,4	9,0
Emakumea	97,1	102,0	97,2	68,3	28,2	8,5
Haur eta lehen hezkuntza (2)						
Guztira	98,8	102,7	1,9	-	-	-
Gizona	100,4	103,4	2,3	-	-	-
Emakumea	97,1	102,0	1,5	-	-	-
Bigarren hezkuntza (3)						
Guztira	-	-	94,4	16,5	1,7	0,5
Gizona	-	-	93,2	18,4	2,0	0,5
Emakumea	-	-	95,6	14,5	1,5	0,4
DBH (4)						
Guztira	-	-	68,9	-	-	-
Gizona	-	-	69,8	-	-	-
Emakumea	-	-	68,0	-	-	-
Batzilergoa						
Guztira	-	-	23,6	8,5	0,6	0,1
Gizona	-	-	20,9	8,5	0,7	0,1
Emakumea	-	-	26,4	8,5	0,6	-
Lanbide-heziketa (5)						
Guztira	-	-	1,9	7,9	1,1	0,4
Gizona	-	-	2,4	9,9	1,3	0,5
Emakumea	-	-	1,3	5,9	0,9	0,3
Goi-mailako ikasketak						
Guztira	-	-	-	48,0	25,5	8,3
Gizona	-	-	-	42,4	24,4	8,5
Emakumea	-	-	-	53,8	26,7	8,1
Unibertsitateaz kanpoko goi-mailako ikasketak (6)						
Guztira	-	-	-	12,4	4,0	1,2
Gizona	-	-	-	14,3	4,3	1,3
Emakumea	-	-	-	10,4	3,7	1,1
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak						
Guztira	-	-	-	35,6	21,5	7,1
Gizona	-	-	-	28,1	20,0	7,2
Emakumea	-	-	-	43,4	23,0	7,0

(1) Eskolatzetasa garbia: maila eta adin-talde bakoitzean eskolatutakoen eta adin-talde horren biztanleriaren arteko erlazioa. (2) Haur eta lehen hezkuntza: haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta hezkuntza berezia bi mailatan. (3) Bigarren hezkuntza: DBH, hezkuntza berezia DBHn, Batxilergoa, Lanbide-heziketa eta Zereginen ikaskuntza. (4) DBH: derrigorrezko bigarren hezkuntza eta hezkuntza berezia maila honetan. (5) Lanbide-heziketa: erdi-mailako LH eta Zereginen ikaskuntza. (6) Goi-mailako LH.

ITURRIA: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzari buruzko estatistika.

Azken urteotako joerak kontuan hartuta, Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleen sexuen araberrako proportzioa (erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloetan matrikulatutakoak) erabat aldatzen da aukeratutako adarraren arabera: zenbait kasutan, mutilak dira gehiengoa nabarmenki eta beste zenbaitetan, aitzitik, neskak. Mutilak dira gehiengoa honako ziklo hauetan: metalgintza, elektrizitatea eta elektronika, arte grafikoak, automozioa edo mantentzea; neskak dira gehiengoa, bestalde, honako hauetan: osasun-adarra, ile-apainketa eta estetika eta administrazioa. Nahiz eta oraingoz gauzak horrela egon, kontuan hartu behar da gero eta neska gehiago (nahiz eta gutxi diren oraindik) matrikulatzen dela orain arte mutilak bakarrik matrikulatzen ziren zikloetan. Ikasleen gehiengoa biltzen duten espezialitateak bakarrik kontuan hartuta (1.000 pertsonatik gora matrikulatu diren zikloak), egoera anitzak bereiz daitezke: erdi-mailako zikloei dagokienez, elektrizitatea/electronika eta metalgintzako ikasleen artetik %3 neskak dira, baina goi-mailako zikloetan %10era iristen dira. Osasuna eta merkataritza-zerbitzuen adarretan, aitzitik, oso mutil gutxi dago. Ikasle gehien dituen goi-mailako prestakuntza-zikloan (Informatika, 3.401 ikasle) neskak dira guztizkoaren ia heren bat.

3.3. TAULA Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetako ikasleak sexuaren arabera. 1.000 matrikula baino gehiagoko zikloak. 2002/2003

	GUZTIRA	METAL/ FABRIK. MEKÁNIKOA	ELEKTRIZ./ ELEKTRONIKA	OSASUNA	ADMINISTRAZIOA	ZERBITZUAK KOMERTZIALA/ SOZIOLOGIKOA	INFORMATIKA
Erdi Mailako Prestakuntza Zikloak							
Talde-kop.	695	134	93	61	89	--	--
Ikasleak guztira	11.203	2.432	1.543	1.036	1.320	--	--
Neskak	4.086	63	32	964	1.045	--	--
Ikasleen %	36,5	2,6	2,1	93,1	79,2	--	--
Mutilak	7.117	2.369	1.511	72	275	--	--
Ikasleen %	63,5	97,4	97,9	6,9	20,8	--	--
Goi Mailako Prestakuntza Zikloak							
Talde-kop.	1.101	156	155	70	136	60	172
Ikasleak guztira	18.626	2.505	2.478	1.231	2.232	1.116	3.401
Neskak	7.918	238	235	1.041	1.735	1.023	1.092
Ikasleen %	42,5	9,5	9,5	84,6	77,7	91,7	32,1
Mutilak	10.708	2.267	2.243	190	497	93	2.309
Ikasleen %	57,5	90,5	90,5	15,4	22,3	8,3	67,9

ITURRIA: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzari buruzko estatistika.

Pertsona gazte atzerritarren hezkuntza-mailari dagokionez (16-29 urte bitartekoak), biztanleria gaztearekin eskuarki alderatuz, pertsona analfabeto eta ikasketarik gabeko pertsona asko dagoela islatzen dute jasotako datuek; ildo horretan, biztanleria gaztea eskuarki hartuta oso pertsona analfabeto edo ikasketarik gabeko gutxi dago. Gainerako alderdietan ez dago sexuen araberako desberdintasun garrantzitsurik, nahiz eta, adinaren araberako azpitalde guztietan gehiago diren Goi-mailako Batxilergoa eta Diplomaturak eta Lizentziaturak dituzten emakumeak, 2 eta 7 puntuko al-

dearekin. Gizonak gehiago dira Lanbide Heziketaren esparruan, nahiz eta kategoria horrek eragin txikiagoa duen guztizko biztanle gazteen gainean.

3.4. TAULA 16-29 urteko biztanle atzerritarrek adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. Datu absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2001

	GUZTIRA	ANALFABETOAK	IKASKETARIK EZ DUTEN PERTSONAK	LEHEN MAILA	OINARRIZKO BATXILERGOA	GOI-MAILAKO BATXILERGOA	ERDIMAILAKO LH	GOI-MAILAKO LH	DIPLOMATURA	LIZENTZIATURA	DOKTOREGOA
Bi sexuak											
Guztira	25.895	2,3	6,8	19,8	25,0	18,0	4,1	5,5	6,8	10,7	1,0
16-19 urte	1.335	1,1	3,5	23,3	41,7	22,2	3,5	2,4	1,3	0,9	0,1
20-24 urte	3.437	1,1	4,2	15,5	29,1	25,4	5,5	8,1	5,5	5,4	0,2
25-29 urte	4.507	1,2	4,8	17,0	26,8	20,9	4,6	6,2	6,4	11,4	0,6
Gizonak											
Guztira	12.584	2,2	7,0	20,1	24,4	16,2	4,6	6,2	6,6	11,5	1,2
16-19 urte	655	1,4	3,4	25,9	41,7	20,0	3,7	2,7	0,5	0,8	0,0
20-24 urte	1.641	1,4	5,2	16,9	30,0	22,9	6,4	8,8	4,0	4,3	0,1
25-29 urte	2.212	1,4	5,6	19,2	25,7	17,8	5,4	7,3	6,6	10,3	0,7
Emakumeak											
Guztira	13.311	2,5	6,6	19,5	25,6	19,6	3,7	4,9	7,0	9,9	0,7
16-19 urte	680	0,8	3,7	20,7	41,7	24,3	3,4	2,2	2,0	1,1	0,2
20-24 urte	1.796	0,8	3,2	14,2	28,3	27,8	4,6	7,5	6,8	6,4	0,3
25-29 urte	2.295	1,1	4,1	15,0	27,9	23,9	3,8	5,1	6,2	12,5	0,5

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE.

Gauzak horrela, pertsona atzerritarren %10ek baino gutxiagok ez dute i nolako ikasketarik eta antzekoak dira bi sexuetan erregistratutako ehunekoak. Ondorengo kate-goriatan gizonen portzentajeak emakumeenak baino zertxobait altuagoak dira: %20 inguruk lehen mailako ikasketak egin dituzte (mutilen %20,1 eta nesken %19,5); erdiak baino gehiagok dituzte bigarren mailako ikasketak (mutilen %51,4 eta nesken

%53,8); eta %18k inguruk goi-mailako ikasketak dituzte: %19,3 mutilen kasuan eta %17,6 nesken kasuan.

3.5. TAULA 16-29 urteko biztanleria atzerritarra prestakuntza-mailaren arabera. Portzentaje bertikalak. 2001

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Ikasketarik gabe	9,1	9,2	9,1
Lehen hezkuntza	19,5	20,1	19,8
Bigarren hezkuntza	53,8	51,4	52,6
Goi-mailako hezkuntza	17,6	19,3	18,5

ITURRIA: Bertan landua, Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001 txostenean oinarrituta. INE.

Amaitzeko, biztanle gazteek duten euskararen ezagutzari buruzko hainbat datu aztertuta dira (29 urte bitarteko gazteak). Bereziki azpimarragarria da pertsona gazteek duten euskararen ezagutza biztanleriak eskuarki duena baino arras hobea dela: biztanleriaren erdiak inguruk ulertzen, hitz egiten eta irakurtzen du euskaraz eta %80 dira emakume gazteen artean eta %76, berriz, gizon gazteen artean. Sexuen arteko desberdintasunak nabarmendu egiten dira adin-taldeetan gora egin ahala; horrela, 25-29 adin-tartean emakumeen %75ek ulertzen, hitz egiten eta irakurtzen dute euskaraz, eta gizonen kasuan %68k.



3.6. TAULA Euskararen ezagutza adin-taldeka. Datu absolutuak

	GUZTIRA BIZTANLERIA	GUZTIRA GAZTEAK 0-29 URTE	0-4 URTE	5-9 URTE	10-14 URTE	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Emakumeak								
Ez du ulertzen	455.483	54.419	16.905	3.230	2.725	4.434	9.753	17.372
Ulertu bakarrik	36.827	9.341	4.017	346	235	557	1.426	2.760
Ulertzen eta irakurtzen du	8.364	2253	1	57	77	178	665	1.275
Ulertzen eta hitz egiten du	47.285	24444	17.439	4.264	241	324	814	1.362
Ulertzen, hitz egiten eta irakurtzen du baina ez du idazten	14.949	1697	137	366	61	127	367	639
Ulertzen du eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten du	490.787	239949	2.380	29.451	38.062	46.806	60.852	62.398
Ulertzen dutenak eta hitz egiten eta irakurtzen dutenak	553.021	266090	19.956	34.081	38.364	47.257	62.033	64.399
Ulertu eta hitz egiten eta irakurtzen dutenen								
% guztizkoarekiko	52	80	49	90	93	90	84	75
GUZTIRA	1.053.695	332.103	40.879	37.714	41.401	52.426	73.877	85.806
Gizonak								
Ez du ulertzen	441.121	68.333	18.102	3.434	3.013	5.996	14.175	23.613
Ulertu bakarrik	42.641	12.186	4.747	489	286	777	2.178	3.709
Ulertzen eta irakurtzen du	9.801	2.793	7	50	92	301	810	1.533
Ulertzen eta hitz egiten du	47.134	25.974	17.893	4.518	256	428	1.050	1.829
Ulertzen, hitz egiten eta irakurtzen du baina ez du idazten	14.878	2.332	182	448	71	158	600	873
Ulertzen du eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten du	456.206	238.415	2.366	30.981	39.416	47.742	58.902	59.008
Ulertzen dutenak eta hitz egiten eta irakurtzen dutenak	518.218	266.721	20.441	35.947	39.743	48.328	60.552	61.710
Ulertu eta hitz egiten eta irakurtzen dutenen								
% guztizkoarekiko	51	76	47	90	92	87	78	68
GUZTIRA	1.011.781	350.033	43.297	39.920	43.134	55.402	77.715	90.565

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

UNIBERTSITATEKO IKASKETAK

3.2

EAEko unibertsitateko ikasleei dagokienez, 2002/2003 ikasturtean 76.589 pertsona matrikulatu dira guztira, eta ikasleen artean gehiago dira emakumeak, hain zuzen: %54,6 dira emakumeak eta %45,4 gizonak. Ikasleek aukeratutako ikasketa-motaren arabera datuei erreparatuz, karreretako ikasleen osaera nabarmenki aldatzen da sexuaren arabera. Azken urteotan errepikatutako joerarekin bat eginez, zenbait karreratan gehiago dira emakumeak, baina beste zenbaitetan, aitzitik, gizon gehiago ikus daiteke geletan.


Horrela, karrera bat "emakumeena" edo "gizonena" dela esateko, ikasleen osieran %75 baino gehiago sexu batekoak izan behar dira. Irizpide horretatik abiatuta, beraz, emakumeek agerpen nabarmena duten karrerak Osasun Zientzia, Giza Zientzia eta Gizarte Zientzien esparrutan aurkituko ditugu: Erizaintza (portzentajerik altuena, %88,5), Farmazia, Medikuntza, Odontologia, Dietetika eta Nutrizioa, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia, Gizarte Lana, Gizarte Hezkuntza, hainbat espezialitateko Maisu-maistra ikasketak (Gorputz Hezkuntza-ko maisu-maistra izan ezik; %33,2 bakarrik dira emakumeak), Itzulpena eta Interpretazioa, Publizitatea eta Harreman Publikoak eta hainbat Filologia.

Aitzitik, ikasleen %75 baino gehiago gizonak diren karrerak arlo zientifikoarekin eta teknikoarekin erlazionatutakoak dira, hala nola: Automatika eta Industria Elektronikako Injinerutza, Itsas Nabigazioa, Itsasontzi Makinak eta injinerutza tekniko ugari (matrikula-kopuru altuen dutenak barne hartuta, hain zuzen Injinerutza Tekniko Meekanikoa eta Injinerutza Tekniko Elektronikoa Industrial, guztiek batera 6.000 ikasle inguru dituztenak).

Aurretik landutako txostenetako datuekin alderatuta, aurreko ikasturteetako pareko joerak ikus daitezke, baina oraingo honetan berrikuntza bat azpimarratu behar da: gaur egun ez dago ikasleen %88 baino gehiago gizonak diren karrerarik: %87,2 da gizonen portzentajerik altuena eta Elektrizitateko Injinerutza Teknikoaren karrerari da-

gokio. Beste modu batera esateko, duela urte gutxi arte ia emakumerik ez zegoen karreretan, gaur egun ikasleen %12, gutxienez, emakumeak dira. Beste muturrean aurkituko ditugu emakumeek gehiengoa duten karrerak (ikasleen %90 emakumeak dira), eta Hezkuntza Bereziko Maisu-maistra eta Dietetika eta Giza Nutrizio dira karrera horiek.

Unibertsitateko geletako sexuen araberako osaerak azken urteetan izandako bilakera orokorra kontuan hartuta, zenbait kasutan sexuen arteko oreka lortzen ari dela esan daiteke. Beste karrera askoren kasuan, haatik, sexu bateko ikasleak nagusitzen dira. Ikasketa gehien kasuan, karrera guztien %65, %40 eta %60 bitartean kokatzen da sexuen arteko proportzioa.



3.7. TAULA Unibertsitateko Ikasketak EAEn. Ikasleak ikasketa-motaren arabera eta sexuaren arabera. Datu absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2002/2003

		EMAKUMEAK		GIZONAK	
		ABS.	%	ABS.	%
GUZTIRA	76.589	41.843	54,6	34.746	45,4
2 zikloko ikasketak	43.123	24.796	57,5	18.327	42,5
Arkitektura	1.352	723	53,5	629	46,5
Telekomunikazioen Injinerutza	1.086	394	36,3	692	63,7
Industria Injinerutza	3.748	954	25,5	2.794	74,5
Informatika Injinerutza	1.960	497	25,4	1.463	74,6
Injinerutza kimikoa	592	326	55,1	266	44,9
Farmazia	751	631	84,0	120	16,0
Zientzia politikoak eta soziologia	292	136	46,6	156	53,4
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	43	21	48,8	22	51,2
Zientzia fisikoak	385	123	31,9	262	68,1
Zientzia matematikoak	333	208	62,5	125	37,5
Zientzia kimikoak	1.529	1.010	66,1	519	33,9
Zientzia geologikoak	410	239	58,3	171	41,7
Zientzia biologikoak	1.147	789	68,8	358	31,2
Arte Ederrak	1.552	1.083	69,8	469	30,2
Psikologia	2.862	2.269	79,3	593	20,7
Zuzenbidea	5.127	3.050	59,5	2.077	40,5
Filosofia eta Hezkuntza Zientziak	165	119	72,1	46	27,9
Geografia eta historia	162	77	47,5	85	52,5
Filologia	56	41	73,2	15	26,8
Odontologia	293	232	79,2	61	20,8
Medikuntza	1.240	975	78,6	265	21,4
Administrazioa eta enpresa-zuzendaritza	6.601	3.891	58,9	2.710	41,1
Ekonomia Zientziak	1.739	838	48,2	901	51,8
Politika- eta administrazio-zientziak	443	232	52,4	211	47,6
Soziologia	593	345	58,2	248	41,8
Publizitatea eta harreman publikoak	631	499	79,1	132	20,9
Itzulpena eta interpretazioa	213	187	87,8	26	12,2
Filosofia	483	187	38,7	296	61,3
Filologia alemana	145	109	75,2	36	24,8
Filologia klasikoa	46	33	71,7	13	28,3
Filologia frantsesa	77	62	80,5	15	19,5
Filologia hispanikoa	232	158	68,1	74	31,9
Filologia ingelesa	793	631	79,6	162	20,4
Euskal filologia	454	290	63,9	164	36,1
Geografia	137	43	31,4	94	68,6

3.7. TAULA Unibertsitateko Ikasketak EAEn. Ikasleak ikasketa-motaren arabera eta sexuaren arabera. Datu absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2002/2003 (jarraipena)

		EMAKUMEAK		GIZONAK	
		ABS.	%	ABS.	%
Historia	1.037	491	47,3	546	52,7
Artearen historia	357	267	74,8	90	25,2
Ikus-entzunezko komunikazioa	390	270	69,2	120	30,8
Kazetaritza	1.281	839	65,5	442	34,5
Giza zientziak	913	612	67,0	301	33,0
Pedagogia	691	575	83,2	116	16,8
Ingurumen-zientziak	226	150	66,4	76	33,6
Ariketa fisikoaren eta kirolaren zientziak	463	157	33,9	306	66,1
Elizako ikasketak	93	33	35,5	60	64,5
2. zikloko ikasketak	3.597	1.762	49,0	1.835	51,0
Injinerutza elektronikoa	221	72	32,6	149	67,4
Injinerutza automatikoa eta elektronika industrial	447	80	17,9	367	82,1
Industria-antolakuntzako injinerutza	986	249	25,3	737	74,7
Materialen injinerutza	113	31	27,4	82	72,6
Marina zibila	117	30	25,6	87	74,4
Biokimika	116	71	61,2	45	38,8
Merkatuko ikerketa eta teknikak	72	44	61,1	28	38,9
Gizarte eta kultur antropologia	280	188	67,1	92	32,9
Elikagaien zientzia eta teknologia	165	127	77,0	38	23,0
Ontzi makinak	4	0	0,0	4	100,0
Nautika eta itsas garraioa	15	6	40,0	9	60,0
Psikopedagogia	934	790	84,6	144	15,4
Zientzia aktuarialak eta finantzarioak	127	74	58,3	53	41,7
1. zikloko ikasketak	27.477	14.075	51,2	13.402	48,8
Itsas nabigazioa	133	33	24,8	100	75,2
Ontzi makinak	119	16	13,4	103	86,6
Erizaintza	1.109	981	88,5	128	11,5
Gizarte-lana	702	623	88,7	79	11,3
Enpresa-ikasketak	4.484	2.427	54,1	2.057	45,9
Laneko harremanak	965	612	63,4	353	36,6
Gizarte-hezkuntza	1.440	1.215	84,4	225	15,6
Haur hezkuntzako maisu-maistra	1.839	1.642	89,3	197	10,7
Lehen hezkuntzako maisu-maistra	1.330	960	72,2	370	27,8
Irakasle ikasketak atzerriko hizkuntzan	528	408	77,3	120	22,7
Heziketa fisikoko maisu-maistra	578	192	33,2	386	66,8

3.7. TAULA Unibertsitateko Ikasketak EAEn. Ikasleak ikasketa-motaren arabera eta sexuaren arabera. Datu absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2002/2003 (jarraipena)

	EMAKUMEAK			GIZONAK	
	ABS.	%		ABS.	%
Musika-hezkuntzako maisu-maistra	345	252	73,0	93	27,0
Hezkuntza bereziko maisu-maistra	478	431	90,2	47	9,8
Turismoa	1.163	954	82,0	209	18,0
Dietetika eta giza nutrizioa	312	284	91,0	28	9,0
Injinerutza tekniko topografikoa	280	110	39,3	170	60,7
Injinerutza tekniko mekanikoa	3.030	511	16,9	2.519	83,1
Injinerutza tekniko elektroniko industrial	2.747	569	20,7	2.178	79,3
Industria-diseinuko injinerutza industrial	278	130	46,8	148	53,2
Kudeaketa-informatikako injinerutza industrial	2.107	675	32,0	1.432	68,0
Sistemen informatikako injinerutza tekniko	949	171	18,0	778	82,0
Eraikuntza zibilen injinerutza tekniko	182	56	30,8	126	69,2
Hiri-garraio eta -zerbitzuen injinerutza tekniko	80	21	26,3	59	73,8
Kimika industrialeko injinerutza tekniko	720	428	59,4	292	40,6
Elektrizitateko injinerutza tekniko	563	72	12,8	491	87,2
Telekom. Sistemen injinerutza tekniko	144	56	38,9	88	61,1
Telekomunikazio eta telematikako injinerutza tekniko	208	53	25,5	155	74,5
Arkitektura tekniko	76	37	48,7	39	51,3
Meatzeen ustiapenaren injinerutza tekniko	143	27	18,9	116	81,1
Inst. erregai eta lehergaiaren injinerutza tekniko	9	3	33,3	6	66,7
Meatzeko inst. elektromekanikoaren injinerutza tekniko	32	7	21,9	25	78,1
Baliabide energetiko, erregai eta lehergaiaren injinerutza tekniko	250	68	27,2	182	72,8
Mineralurgia eta metalurgiako injinerutza tekniko	96	16	16,7	80	83,3
Erljio zientziak	58	35	60,3	23	39,7
3. zikloko ikasketak	2.392	1.210	50,6	1.182	49,4
Doktoregoa	2.392	1.210	50,6	1.182	49,4

ITURRIA: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzari buruzko estatistika.

Unibertsitatetik irtendako pertsonen lan-munduan sartzeko garatzen duten prozesua ezagutzeko azterlan bat landu zuen 2003. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak; xede horrekin, lizentziatura edo diplomatura lortu zuten ikasleen ibilbidea aztertu zen, 1999. urtea erreferentzia hartuta. Aipatutako txostenaren arabera, ikasketen amaierako batez besteko nota antzekoa da lizentziaturen kasuan (6,4 bi sexuen kasuan) eta diplomaturen kasuan (6,8 emakumeen kasuan eta 6,3 gizonen kasuan). Hala ere, aipatutako azterlanaren emaitzek garbi islatzen dute lanpostu bat lortzeko orduan sexuaren arabera egiten diren desberdintasunak. Lehenik eta behin, unibertsitateko langabezia-tasari erreparatuz, ia 4 puntuko aldea nabarmendu behar da: %11,6 emakumeen kasuan eta %7,8 gizonen kasuan. Bigarrenik, lehenengo enplegua lortzeko itxaron beharreko batez besteko denbora laburragoa da gizonen kasuan, hain zuzen: 6,7 hilabete, eta 8,9 hilabete emakumeen kasuan. Hirugarrenik, egindako azterlanetan enpleguaren portzentajeak askoz ere baxuagoak dira emakumeen kasuan: %67, gizonen artean %80 den bitartean. Azkenik, hileko batez besteko ordainsari-maila ere baxuagoa da unibertsitateko emakumeentzat, hain zuzen: 977 euro eta gizonen kasuan 1.177 euro; hau da, hilean 200 euro-ko aldea.

3.8. TAULA Unibertsitateko tituludunen lan-txertaketari buruzko adierazleak. 1999ko promozioa

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Diplomatura baten ikasketak amaitzeko batez besteko denbora	6,6 urte	6,8 urte	6,3 urte
Lizentziaturaren ikasketen amaierako batez besteko nota	6,4	6,4	6,4
Unibertsitateko langabezia-tasa	%9,7	%11,6	%7,8
Enplegua lortzeko batez besteko denbora	8 hilabete	8,9 hilabete	6,7 hilabete
Enplegua	%72	%67	%80
Hileko batez besteko ordainsari-maila	1.057 euro	977 euro	1.177 euro

ITURRIA: Unibertsitateko Tituludunen Lan Txertaketari buruzko Inkesta, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.

4

EMANTZIPAZIOA

ENPLEGUA

4.1

Enplegua dugu gizarte baten ezaugarri sozio-ekonomikoak ezagutzeko esparru garrantzitsuenetako bat: enplegu-tasari buruzko adierazleak, lanean ari diren biztanleak edo langabezia-tasa gizarte-egitura bere osotasunean osatzen duten adierazleak dira eta gizarteko sektore jakin batzuen bizi-baldintzak baldintzatzen dituzte. Eta alderdi hori kontuan hartu behar da, nahitaez, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak aztertzeke orduan, batez ere gazte taldeaz ari garenean, izan ere, sexuen arabera bereizketa nabarmena da.

Hasteko, Europar Batasuneko 15-24 urte bitarteko biztanleriaren enpleguaren adierazle nagusiekin alderatuz, bereziki azpimarragarria da Euskadiko gazteen egoera eta Europako gazteena berdina ez direla. EBko enplegu-tasa 40,7 den bitartean, Euskadikoa 32,5 da. Are nabarmenagoak dira sexuen arabera desberdintasunak (27,7 emakumeen kasuan eta 39,9 gizonen kasuan); EBn, ordea, 7 puntu altuagoa da gizonen enplegu-tasa emakumeena baino (44,2 eta 37,1 hurrenez hurren). Langabezia-tasa, halaber, altuagoa da Euskadin EBn baino: 19,1 Euskadin eta 14,9 EBn. Nahiz eta gazteen langabezia-tasak nabarmenki gaitzitzen duen biztanleria osoaren tasa (%8,3 inguru), bilakaerari erreparatuz egoera zertxobait hobetzea lortu dela esan daiteke, izan ere, 1996tik ia erdira murriztea lortu da. Edozein kasutan, gazteen langabeziak atzera egin badu ere, ezin dugu beti gauza positibotzat ulertu, izan ere, sarritan enplegu ezegonkorrak lortzen dituzte gazteek. Sexuen arabera, bestalde, nahiz eta azken urteotan bien arteko desberdintasunak murriztea lortu den, emakume gazteen langabezia-tasa gizon gazteena baino altuagoa da. 2002. urtean 24,9ko tasa erregistratu zen emakumeen artean eta 15,4koa gizonen artean.

4.1. TAULA Enpleguari buruzko funtsezko adierazle konparatuak: EAE-Europar Batasuna. Bilakaera 1996-2001

	EUROPAR BATASUNA			EAE		
	1996	2001	2001-1996	1996	2002	2002-1996
GUZTIRA						
Enplegu-tasa (15-24 urteko bizt. %)	36,5	40,7	4,2	21,7	32,5	10,8
Gazteen langabezia-tasa (15-24 urteko bizt. Aktiboaren %)	20,8	14,9	-5,9	47,6	19,1	-28,5
Langabezian dauden gazteen portzentajea (15-24 urteko bizt. %)	9,6	7,1	-2,5	17,7	7,9	-9,8
Emakumeak						
Enplegu-tasa (15-24 urteko bizt. %)	33,2	37,1	3,9	15,7	27,7	12,0
Gazteen langabezia-tasa (15-24 urteko bizt. Aktiboaren %)	22,2	16,0	-6,2	55,9	24,9	-31
Langabezian dauden gazteen portzentajea (15-24 urteko bizt. %)	9,5	7,0	-2,5	19,8	9,0	-10,8
Gizonak						
Enplegu-tasa (15-24 urteko bizt. %)	39,8	44,2	4,4	25,8	39,9	14,1
Gazteen langabezia-tasa (15-24 urteko bizt. Aktiboaren %)	19,7	14,0	-5,7	38,5	15,4	-23,1
Langabezian dauden gazteen portzentajea (15-24 urteko bizt. %)	9,7	7,2	-2,5	16,1	6,8	-9,3

ITURRIA: EGAILAN.

Lan-egoera eta sinatzen den kontratu-mota estuki erlazionatutako bi alderdi dira. Ildo horretan egindako makina bat azterlanek baieztatu dutenez, gazteak eta emakumeak dira, nagusiki, enplegu ezegonkorrak dituzten pertsonak edo kontraturik gabeko soldatako pertsonak. Horrelako egoerak, berez, legez kanpokoak dira eta horrexegatik da oso zaila horren inguruko datu fidagarriak lortzea eta estatistika batean islatzea. 2003an EUSTATEk landutako Biztanleria Jardueraren arabera izeneko Inkestako datuek adierazten dutenez, soldatako langileen bi herenak kontratu mugagabea-finkoa dute. Pertsona gazteei erreparatuz (16-24 urte), ordea, ez dira heren bat ere kontratu mugagabea-finkoa duten langileak. Biztanleria bere osotasunean hartuta, eta gazteen taldeari arreta berezia eskainiz, askoz ere gehiago dira mota horretako kontratuak dituzten gizonak. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da kontraturik gabe lanean ari diren pertsonen multzoaren eragina. Aipatutako inkestaren arabera, gazteen artean %4 dira horrelako egoera bat bizi dutenak, baina kopuru

hori sexuaren ikuspegitik aztertuz gero, horien artetik %2 gizonak direla eta %8,7 emakumeak direla ikus daiteke.

4.2. TAULA 16 urte edo gehiago eduki eta soldatako langileak diren biztanleak (kooperatibistak kanpo) kontratu-motaren eta adinaren arabera (milakotan). 2003

	GUZTIRA	GUZTIRA GIZONAK	EMAKUMEAK
Guztira	715,5	412,3	303,2
16-24 urte	63,0	36,6	26,4
Mugagabea-finkoa	480,9	296,8	184,1
16-24 urte	17,3	10,1	7,2
Aldi baterako	205,4	112,1	93,3
16-24 urte	42,7	25,8	16,9
Kontraturik gabe eta beste hainbat	29,2	3,4	25,8
16-24 urte	3,0	0,7	2,3

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren arabera izeneko Inkesta.

Legezko kontratuak bakarrik kontuan hartuta, eta INEMek EAEn jasotako datuen arabera, hiru kategoriatan sailkatu ahal dira pertsona gazte gehienak (29 urte bitartean): aldi baterako kontratua dutenak, obra edo zerbitzuko kontratua dutenak eta bitarteko kontratua dutenak. Hiru kategoria horietan multzokatzen dira gazteek sinatutako lan-kontratu guztien %94. Aldi baterako kontratuen kategoriari dagokionez, ez dago sexuen arteko desberdintasun handirik, baina obrako kontratuen kasuan, gehiago dira gizonak emakumeak baino (84.666 eta 62.261 hurrenez hurren). Aitzitik, gehiago dira emakumeak gizonak baino bitarteko kontratuei erreparatuz (36.017 eta 14.630 hurrenez hurren). Kontratu mugagabeen kasuan, emakumeen bikoitza dira gizonak, eta enplegu-sustapen mugagabeetan ia 5.000 emakumeak dira eta 1.032 bakarrik gizonak. Azkenik, praktiketako hitzarmenetan gizonak gehiago dira, 3.648, an-

dreak baino, 2.627. Adin-tarteei erreparatuz, gehienak 25 urtetik beherako gazteak dira.

*Emakume gazteek gizonak baino langabezia-tasa altuagoa pairatzen dute.
24,9 eta 15,4 dira, hurrenez hurren, langabezia-tasak.*

4.3. TAULA Kontratu-mota sexuaren eta adinaren arabera. 2003

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	<25	25-29	<25	25-29
Mugagabe arrunta	824	1.169	1.945	2.303
Enplegu-sustapen mugagabea	2.347	2.564	531	501
Ezinduak	13	22	13	38
Obra edo zerbitzua	36.182	26.079	47.461	37.205
Ekoizpenaren arabera aldi baterakoa	49.083	36.068	54.078	34.253
Bitartekoa	17.975	18.042	7.823	6.807
Aldi baterakoak ezinduak	40	53	61	96
Txertatzeko aldi baterakoa	262	374	218	192
Txandakoa	61	167	514	671
Praktikak	1.749	878	2.583	1.065
Prestakuntza	769	38	1.411	39
Beste hainbat kontratu	153	173	208	256
Guztira partzialak	109.458	85.627	116.846	83.426
Guztira sexuen arabera		195.085		200.272
GUZTIRA				395.357

ITURRIA: INEM.

2003. urtean 828.781 enplegu-eskaera aurkeztu dira INEMen (horietatik erdia inguru 29 urtetik beherako gazteek aurkeztutakoak dira); eskaera horietan ez dago desberdintasun nabarmenik biztanleen sexuaren arabera (20-29 adin-tartean). Pertsona gazteenei dagokienez, hainbat ezaugarri azpimarratu beharko lirateke: gizonak dira 20

urtetik beherako enplegu-eskatzaileen %60,3. INEMen 829.243 enplegu-eskaera egin dira eta banaketa orekatsua lortu da baja emandako pertsonen sexuaren arabera. Oraingoan ere 20 urtetik beherako adin-tartean erregistratu da sexuen araberako desberdintasun handiena, eta gizonak dira guztizkoaren %60,6.

4.4. TAULA INEMen erregistratutako enplegu-eskaeren altak eta bajak, adinaren arabera. Portzentaje horizontalak. 2003

	GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
	ABS.		ABS.	%	ABS.	%
Enplegu-eskaeraren altak						
< 20 urte	43.049		25.962	60,3	17.087	39,7
20 - 24 urte	201.264		100.167	49,7	101.097	50,3
25 - 29 urte	191.046		93.316	48,8	97.730	51,2
Altak guztira	828.781		405.149	48,9	323.632	51,1
Enplegu-eskaeraren bajak						
< 20 urte	41.936		25.396	60,6	16.540	39,4
20 - 24 urte	198.931		99.085	49,8	99.846	50,2
25 - 29 urte	192.701		93.677	48,6	99.024	51,4
Bajak guztira	829.243		403.713	48,7	425.530	51,3

ITURRIA: INEM.

INEMen erantzun gabe dauden enplegu-eskaerei dagokienez, emakume gehiago daude langabezia-zerrendetan, 20 urtetik beherako gazteen taldean izan ezik. INEMek erantzundako enplegu-eskaerei erreparatuz, bi sexuetan pareko emaitzak lortu dira, baina oraingoan ere salbuespena izan da adin-tarte gazteena, non emakumeak ez diren %40ra iristen.

4.5. TAULA INEMen erantzun gabeko eskariak eta erantzundako eskariak, adinaren eta sexuaren arabera. 2003

	GUZTIRA ABS.	GIZONAK ABS.	%	EMAKUMEAK ABS.	%
Erantzun gabeko eskariak (erregistratutako langabezia)					
< 20 urte	1.731	1.015	58,6	716	41,4
20 - 24 urte	11.974	5.722	47,8	6.252	52,2
25 - 29 urte	19.187	8.343	43,5	10.844	56,5
Guztira erantzuteke	123.424	53.159	43,1	70.265	56,9
Erregistratutako enpleguak					
< 20 urte	38.561	23.317	60,5	15.244	39,5
20 - 24 urte	185.278	92.627	49,9	92.651	50,1
25 - 29 urte	171.640	84.941	49,5	86.699	50,5
Enpleguak guztira	722.671	359.642	49,8	363.029	50,2

ITURRIA: INEM.

Prestakuntza funtsezko alderdi bat da enplegua bilatzen ari diren pertsonen kasuan. INEMek enplegua sustatzeko aurrera ateratu dituen jardueren dagokionez, emakume gehiagok parte hartu dute. 20 urtetik gorako pertsona gazteen taldeak joera horrekin bat egiten du. Oraingoan ere, adin horretatik aurrera emakumeen proportzioa aldatu egiten da gizonen proportzioarekin alderatuta. Atal honetan adierazitako datu guztien arabera, emakume gazteenek beranduago ezagutzen dituzte eta hurbiltzen dira enplegua sustatzeko erakundeetara.

Emakume gazteenak gizonak baino beranduago hurbiltzen dira enplegua sustatzeko erakundeetara.

4.6. TAULA INEMen prestakuntza jaso duten ikasleak adinaren arabera. Portzentaje horizontalak. 2002

	GUZTIRA	GIZONAK		EMAKUMEAK	
	ABS.	ABS.	%	ABS.	%
< 20 urte	465	268	57,6	197	42,4
20 - 24 urte	3.405	1.333	39,1	2.072	60,9
25 - 29 urte	4.550	1.777	39,1	2.773	60,9
Ikasleak guztira	15.791	5.889	37,3	9.902	62,7

ITURRIA: INEM.

Enpleguaren adierazleez gain, pertsona gazteek emantzipatzeko dituzten aukerak ezagutzeko, horien gaitasun ekonomikoa edo errenta pertsonala hartuko dira kontuan. Hileroko gaitasun ekonomikoari erreparatuz, erdiak baino gehiagok hilean 300 euro-tik beherako diru-kantitatea dute erabilgarri. Sexuen arabera, bestalde, bereziki azpimarragarria da kategoria baxuenetan neskek indize altuagoak erregistratu dituztela; mutilek, ordea, indize altuagoak erregistratu dituzte 600 euro/hilean kategoriatik aurrera: horien artetik %30ek baino gehiagok gainditzen dute kantitate hori, eta nesken artean %20k inguruk.

4.7. TAULA Gazteek hilean erabilgarri duten diru-kantitatea (15-29 urte). Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
60 euro baino gutxiago	23,0	24,4	21,7
61-300 euro artean	31,0	34,3	27,8
301-600 euro artean	14,1	15,1	13,1
601-900 euro artean	16,8	14,5	19,0
901 euro baino gehiago	9,1	5,7	12,4
ED/EE	6,0	6,0	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

ITURRIA: Euskal Gazteria, Eusko Jaurlaritza.

Urteko errenta pertsonalari dagokionez, gazteen batez bestekoa biztanleriaren gutzitza baxuagoa da, batez ere 18-24 adin-tartean. Sexuen arabera desberdintasunak nabarmenak dira: 18-24 adin-tartean gizonen batez bestekoak ia bi-koiztu egiten du emakumeena (3.188 euro gizonek eta 1.605 euro emakumeek); 24-29 adin-tartean, bestalde, 8.312 euro-ko batez bestekoa lortu dute gizonek eta 5.677 euro-koa emakumeek. Errentaren zati handiena bi sexuentzako lanetik lortzen da, nahiz eta proportzionalki kapitaletik lortutako etekinak gehiago diren emakumeen kasuan.

4.8. TAULA Batez besteko errenta pertsonala sexuaren eta errenta-motaren arabera (eurotan). 1997

	GUZTIRA				GIZONAK				EMAKUMEAK			
	Errenta Guztira	Laneko errenta	Kapitalaren errenta	Jardueraren errenta	Errenta Guztira	Laneko errenta	Kapitalaren errenta	Jardueraren errenta	Errenta Guztira	Laneko errenta	Kapitalaren errenta	Jardueraren errenta
18-24 urte	2.535	2.335	82	110	3.424	3.188	80	146	1.605	1.442	83	72
25-29 urte	7.480	6.784	175	508	9.206	8.312	183	698	5.677	5.187	168	310
GUZTIRA	9.888	8.473	654	737	13.882	12.118	607	1.130	6.122	5.036	699	366

ITURRIA: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familia-errentaren estatistika.

ETXEBIZITZA

4.2

Pertsona gazteen emantzipazioa gazteek etxebizitza eskuratzeko duten aukerarekin dago zuzenean erlazionatuta. Hain zuzen, gure gizarteko gazteek gaur egun bizi duten arazo larrienetako bat da etxebizitza duin bat lortzeko eta eskuratzeko ezintasuna, eta horixe da, halaber, botere publikoen aldetik lehentasunez aztertu eta konpondu beharreko arazoetako bat. Duela denbora gutxi arte, ez ziren aztertzen ildo

horretan gizonen eta emakumeen artean gerta daitezkeen desberdintasunak eta, ondorioz, oso datu gutxi ditugu sexuen arteko desberdintasunak ezagutzeko. Izan ere, etxebizitzaren esparrua eta ekonomia estuki lotuta badaude ere, orain arte esparru neutraltzat jo da etxebizitzaren esparrua, hau da, sexuen arteko desberdintasunik egiten ez den esparrutzat ulertu da, nahiz eta, lan honetan ikusiko dugunez, errealitatea desberdina izan. OBJOVI erakundearen datuen arabera (Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea), 18-34 urte bitarteko pertsonen ia herena emantzipatu da, hau da, familiaren etxetik kanpo bizi dira. Sexuak bereiziz desberdintasun nabarmenak ikus daitezke: emakumeen %35,1 emantzipatuta dauden bitartean, gizonen artean %25,6 dira emantzipatuta bizi diren pertsonak.

4.9. TAULA Emantzipatu diren gazteak EAEn. 2003

	GUZTIRA	18-24 URTE	25-29 URTE	30-34 URTE	GIZONAK	EMAKUMEAK
Emantzipatu den gazte-kopurua	158.684	9.601	39.634	109.449	68.467	90.217
Gazteen guztizkoaren gaineko %	%30,3	%1,8	%7,6	%20,9	%13,1	%17,2
Emantzipazio-tasa (1)	%30,3	%5,4	%22,9	%63,1	%25,6	%35,1

(1) Emantzipazio-tasa: familiaren etxetik kanpo bizi diren pertsonen ehunekoa, adin bereko pertsonen guztizkoarekiko.

ITURRIA: OBJOVI (Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea). 2003.

Iturri horren arabera, EAEn 82.069 familia gazte daude, hau da, familia guztien %11,4 gazteak dira. Horien artetik ia %60ren familiaburua gizon bat da. Hortaz, familiaburuaren tasari erreparatuz (famiaburu diren pertsonen ehunekoa, adin bereko pertsonen guztizkoarekiko) gehiago dira gizon famiaburuak emakumeak baino: %18,2 eta %13 hurrenez hurren. Zentzu horretan, aipatutako datuak eta aurreko taulakoak alderatuz nabarmen geratzen da emakume gazteen artean emantzipazio-indizea altuagoa dela. Horrenbestez, emakume gehiago emantzipatu badira ere, eskuarki gizonak dira famiaburu. Eta famiaburua definitzeko beharrak aspaldiko garaiak

dakarzkigu burura; orduan familiaburuaren figura ondo definituta zegoen, baina gaur egun ez da egokia gizarteko dinamika ulertzeko, eta batez ere gazteen dinamika ulertzeko.

4.10. TAULA EAEko familia gazteak. 2003

	GUZTIRA	18-24 URTE	25-29 URTE	30-34 URTE	GIZONAK	EMAKUMEAK
Familia-kopurua	82.069	4.249	19.967	57.853	48.707	33.362
Familien guztizkoaren gaineko %	%11,4	%0,6	%2,8	%8,0	%6,7	%4,6
Familiaburuaren tasa**	%15,7	%2,4	%11,6	%33,4	%18,2	%13
Familiako kide-kopurua	2,49	2,48	2,25	2,58	2,42	2,60

ITURRIA: OBJOVI (Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea). 2003. *Familiaburuaren tasa: familiaburu diren pertsonen ehunekoa (erreferentziazko pertsonak) adin bereko pertsonen guztizkoarekiko.

Pertsona gazteen eta EAEko familia gazteen batez besteko soldatari erreparatuz, berriro ere nabarmen geratzen dira sexuen arabera desberdintasunak, txosten osoan erabilitako adierazle gehienetan gertatzen den moduan: 18-24 urte bitarteko gizonen urtean 14.535 euro-ko batez besteko soldata duten bitartean, emakumeen batez besteko soldata 11.500 euro-koa da. Gizon gazteak familiaburu diren familiek urtean 21.151 euro-ko sarrerak dituzte, eta emakume gazteak familiaburu diren familiek, berriro, 18.104 euro-koak.

4.11. TAULA Familia gaztearen soldata eta gastuak (urteko eurotan) EAEn. 2003

	GUZTIRA	18-24 URTE	25-29 URTE	30-34 URTE	GIZONAK	EMAKUMEAK
Gazteen batez besteko soldata	14.680,06	7.986,01	12.315,21	20.166,51	14.535,09	11.500,55
Familia gazteen batez besteko soldata	19.820,08	13.733,75	17.258,75	17.258,49	21.151,22	18.104,01

ITURRIA: OBJOVI (Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea). 2003.

2002an Eusko Jaurlaritzak landutako Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestan etxebizitzaren beharra duten pertsonen ezaugarriak bereizten dira (6). Horren arabera, 18-24 adin-tartean gehiago dira etxebizitzaren beharra duten emakumeak gizonak baino. Hurrengo adin-tartean (25-34 urte) —multzo honetan kokatzen dira etxebizitzaren beharra duten pertsona gehien—, gehiago dira etxebizitzaren beharra duten gizonak: %55,6, emakumeen %50en parean. Lan-egoerari erreparatuz, etxebizitzaren beharra duten pertsona gehienek lan-kontratu finkoa edo aldi baterakoa dute eta pareko portzentajeak lortu dira bi sexuetan.

4.12. TAULA Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarriak. Beharra duten pertsonen guztizkoarekiko portzentaje bertikalak. 2002

EZAUGARRIAK	PORTZENTAJEA	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
Adina		
18-24 urte bitartean	39,1	32,2
25-34 urte bitartean	50,0	55,6
35 urte eta gehiago	11,0	12,1
Guztira	100,0	100,0
Batez besteko adina	27,5 urte	28,3 urte
Lan-egoera		
Lanean/bere kontura	4,5	10,0
Lanean/kontratu finkoa	42,1	42,0
Lanean/aldi baterako kontratua	41,1	39,3
Langabetua	6,3	4,0
Etxeko lanak	2,5	0,0
Ikaslea	0,4	1,0
Beste hainbat egoera	3,2	3,8
GUZTIRA	100,0	100,0

ITURRIA: EAEko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta (2002-III).

(6) EAEko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta egiteko sarrerara ekonomikoak zituzten 18-44 urte bitarteko biztanleak hartu ziren kontuan.

5

GAUR EGUNGO EGUNEROKO BIZIMODUA

DENBORAREN ERABILERA

5.1

Denboraren erabilera funtsezko osagai bat da pertsona ororen bizitzan. Azken finean, eguneroko jarduerak garatzeko denborari ematen diogun banaketak edo erabilerak (atseden hartzeko, etxeko lanak egiteko, ikasteko, lan egiteko, harremanetarako, aisialdirako, eta abar) islatzen du gure bizimodua; eta horrexegatik, hain zuzen, gizarteko desberdintasunak ezagutzeko adierazle bikaina da, batez ere emakumeen eta gizonen artean izaten diren desberdintasunak. Hainbat azterlan egin dira denboraren erabilera aztertzeko beharra azpimarratzeko, eta EAeri dagokionez, EUSTATEk Denbora Aurrekontuen Inkesta 2003 (DAI-2003) landu zuen. Azterketa horretan eguneroko jarduerak zortzi multzo nagusitan bereizi dira; alde batetik, multzo bakoitzak batez beste hartzen dituen ordu eta minutuak hartu dira kontuan (batez besteko denbora soziala) eta, bestetik, jarduera-mota hori garatzen dutela dioten pertsonak batez beste eskaintzen dioten denbora (parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora) (7). Aipatutako inkestan 34 urtera bitarteko muga jarri da pertsona gazteen taldea definitzeko.

DAI-2003 inkestan bereizitako zortzi kategoria nagusiak kontuan hartuta, zera esan daiteke: gizonek, eskuarki, denbora gehiago eskaintzen diete aipatutako jarduera guztiei, etxeko lanei eta pertsonen zainketari izan ezik; eta hori gertatzen da biztanleriaren guztizkoa kontuan hartuta, bai eta jarduera bakoitzean parte hartzen duten pertsonak kontuan hartuta ere. Ez da egoera aldatzen 34 urtetik beherako biztanleen multzoan, nahiz eta, kasu horretan, salbuespen txiki bat egin behar den: emakumeek denbora gehiago igarotzen dute joan-etorriak egiten, nahiz eta gizonekiko aldea oso txikia izan.

(7) Inkesta honetan lortutako emaitzak asteko egunen arabera bereizi dira halaber: astelehenetik ostegunera, ostirala, larunbata eta igandea. Orain aurkezten den txosten honetan, haatik, eguneko batez besteko denbora hartuko da kontuan, asteko egunen arabera bereizketarik gabe.

Jardueren arabera, behar fisiologikoak egiteko erabiltzen da egunean denbora gehien (11:50 inguru); ildo horretan, ezin daiteke esan sexuen arabera desberdintasun handirik dagoenik, baina gizonak 3 minutu gehiago erabiltzen dituzte. Hurrengo kategorian lan profesionalari eta ikasketari eskaintzen zaion batez besteko denbora aztertuta da: sexuen arteko desberdintasun nabarmenak ikus daitezke, bai biztanleria guztia aztertuta (gizonak 4:14 eta emakumeak 2:35), bai eta pertsona gazteen taldea aztertuta ere (5:13 gizonak eta 4:59 emakumeak), nahiz eta azken horien kasuan gutxiago izan. Parte-hartzaileen artean (hau da, lan profesionalik edo ikasketarik egiten ez duten pertsonak alde batera utzita), era berean, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke: 34 urtetik beherako pertsonen artean, gizonen batez bestekoa 7:09 da eta emakumeena 6:51.

Etxeko lanei dagokienez, egunean batez beste 2:23 ordu erabiltzen dira horiek egiteko. Denbora hori erdira murrizten da gazteen artean (1:07) eta are gehiago murrizten da gizon gazteen artean (0:41, eta emakume gazteak 1:33). Etxeko lanak egiten denbora ematen duten pertsonen artean desberdintasun handiak daude: 1:17 gizonak eta 2:01 emakumeak. Pertsonen zainketari dagokionez, gazteek biztanleria osoak baino denbora gutxiago eskaintzen diote jarduera horri, baina egoera hori aldatu egiten da pertsonak zaintzen dituzten pertsonen artean: 1:46 ordu batez beste. Gazteen artean, 46 minutuko aldea ikus daiteke sexuen araberrako emaitzetan: 1:11 gizonen kasuan eta 1:57 emakumeen kasuan.

Azkenik, bizitza soziala eta aisialdia dira eguneko zati handi bat hartzen duten jarduerak. Pertsona gazteek biztanleriaren guztizkoak baino denbora gehiago eskaintzen diete gizarteko harremanei, eta are gehiago gizon gazteek emakume gazteek baino, hain zuzen: 2:27 ordu eta 1:54 ordu hurrenez hurren. Aisialdiari dagokionez, aisialdi pasiboa eta aktiboa batuz, egunean 4:42 ordu eskaintzen diote 34 urtetik beherako gizon gazteek eta 3:52 ordu, berriz, emakume gazteek, hau da, egunean 50 minutuko aldea bi sexuen artean.

5.1. TAULA Jarduera nagusiei egunean eskainitako batez besteko orduak, adinaren eta sexuaren arabera

	BIZTANLERIA GUZTIRA			34 URTETIK BEHERAKO BIZTANLEAK		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Batez besteko denbora soziala						
Behar fisiologikoak	11:50	11:51	11:48	11:37	11:37	11:36
Lan profesionala eta prestakuntza-denbora	3:23	4:14	2:35	5:06	5:13	4:59
Etxeko lanak	2:23	1:10	3:31	1:07	0:41	1:33
Etxeko pertsonen zainketa	0:21	0:12	0:29	0:15	0:05	0:25
Bizitza soziala	0:58	1:04	0:52	1:16	1:27	1:03
Aisialdi aktiboa: kirola eta PC eta Internet	1:17	1:27	1:08	1:03	1:11	0:54
Aisialdi pasiboa eta zaletasunak	2:39	2:46	2:33	2:03	2:14	1:53
Joan-etorriak	1:08	1:14	1:03	1:32	1:30	1:34
Batez besteko denbora parte-hartzaileen arabera						
Behar fisiologikoak	11:50	11:51	11:48	11:37	11:37	11:36
Lan profesionala eta prestakuntza-denbora	6:58	7:22	6:25	7:00	7:09	6:51
Etxeko lanak	3:02	1:47	3:53	1:43	1:17	2:01
Etxeko pertsonen zainketa	1:46	1:22	1:59	1:46	1:11	1:57
Bizitza soziala	1:50	1:57	1:43	2:11	2:27	1:54
Aisialdi aktiboa: kirola eta PC eta Internet	2:09	2:22	1:55	1:55	2:08	1:42
Aisialdi pasiboa eta zaletasunak	2:54	3:02	2:47	2:22	2:34	2:10
Joan-etorriak	1:27	1:28	1:25	1:41	1:37	1:44

ITURRIA: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2003.

Horrenbestez, garbi dago oraindik lan handia egin beharko dugula belaunaldien al-daketa lortzeko, hau da, gizonak emakumeen neurri berean beren gain hartzeko etxeko lanak egiteko ardura eta pertsonak zaintzekoa. Bi jarduera horien ildotik, zainketaren banaketa sakonkiago ezagutzeko, lehenik eta behin "pertsona zaintzaileak" definitzen saiatu gara eta, xede horrekin, pertsonak zaintzearekin erlazionatutako jarduera bat garatzen dutela esan duten pertsonak aukeratu ditugu (haurrak zaindu

zein pertsona helduak zaindu), eta horren arabera ezagutuko dugu nola banatzen duten denbora. Horrela, "zaintzaileen" taldean ere denbora gehiago eskaintzen diete emakumeek etxeko lanei (ordubeteko aldea baino gehiago) eta zaintzaile-lanei (46 minutu gehiago), gizonak baino. Bestalde, gizonak denbora gehiago dute bizitza soziala garatzeko eta aisialdirako: hiru kategoriak batera hartuta (aisialdi aktiboa, pasiboa eta bizitza soziala), 6:31 ordu dituzte gizonak eta 5:08 emakumeak.

— Gizonak aisialdirako denbora gehiago dute.
— Emakumeek denbora gehiago eskaintzen diote neska-mutilen zainketari.

5.2. TAULA Pertsonak zaintzen dituzten pertsonen batez besteko orduak, adinaren eta sexuaren arabera

	BIZTANLERIA GUZTIRA			34 URTETIK BEHERAKO BIZTANLEAK		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Behar fisiologikoak	11:05	11:16	10:59	11:02	11:43	10:49
Lan profesionala eta prestakuntza-denbora	6:39	7:09	6:14	6:44	6:24	6:51
Etxeko lanak	3:12	1:46	3:55	2:25	1:33	2:40
Etxeko pertsonen zainketa	1:46	1:22	1:59	1:46	1:11	1:57
Bizitza soziala	1:28	1:35	1:24	1:23	2:02	1:14
Aisialdi aktiboa: kirola eta PC eta Internet	1:48	2:03	1:38	1:50	1:51	1:49
Aisialdi pasiboa eta zaletasunak	2:28	2:33	2:25	2:14	2:38	2:05
Joan-etorriak	1:21	1:20	1:22	1:33	1:32	1:34

ITURRIA: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2003.

Orain arte aipatu diren multzo bakoitzean barne hartutako jarduera jakin batzuei erreparatu, parte-hartzaileen artetik pertsona gazteek 1:40 ordu igarotzen dituzte neska-mutilak zaintzen, hau da, biztanleria bere osotasunean hartuta baino zertxo-

bait gehiago. Pertsona helduen zainketei erreparatuz, pertsona gazteek jarduera horri eskaintzen dioten denbora biztanleriaren guztizkoak eskaintzen diona baino gutxiago da: gazteen kasuan ordubetetik behera da eta gizarteko batez bestekoa 1:43; litekeena da xede dugun adin-tartean garatzen den zainketa-jarduera seme-alaba txikiak zaintzea izatea nagusiki. Zentzu horretan, agerikoak dira sexuen arteko desberdintasunak: 1:51 ordu dira emakumeen artean eta 0:58 gizonen kasuan. Beste familia batzuei laguntzeko orduan ere nabarmenak dira sexuen arteko desberdintasunak; horrela, emakume gazteek 2:30 ordu egiten dituzte egunean eta gizonek 1:51 ordu/egunean.

Aisialdi aktiboarekin erlazionatutako jardueri dagokionez, gizonek emakumeek baino denbora gehiago eskaintzen diote kirolari (1:46 eta 1:15) eta txango eta ibilerei (1:55 eta 1:35 hurrenez hurren). Bestalde, aisialdi pasiboari dagokionez, emaitzak alderantzikatu egiten dira ordenagailuaren erabilerari erreparatuz (emakumeek denbora gehiago ematen dute ordenagailuaren aurrean, 1:32 ordu, gizonen 1:12ren parean), baina Interneten erabilera nahiko parekoa egiten dute bi sexuek: 1:18 ordu alegia. Amaitzeko, eguneko 2:11 ordu erabiltzen dituzte gizonek komunikabideak irakurtzeko edo jarraitzeko, eta emakumeek 20 minutu gutxiago.

5.3. TAULA Parte-hartzaile eta jarduera bakoitzeko batez besteko ordu-kopurua, adinaren eta sexuaren arabera

	GUZTIRA			< 34 URTE		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Zainketa						
Neska-mutilak zaintzea	1:22	1:01	1:33	1:40	0:58	1:51
Pertsona helduak zaintzea	1:43	1:21	1:48	0:57	0:53	0:59
Beste familia batzuetan laguntza informala	1:36	1:10	2:07	2:06	1:51	2:30
Aisialdi pasiboa eta aktiboa						
Kirola egitea	1:24	1:37	1:06	1:34	1:46	1:15
Txangoak eta ibilaldiak	2:06	2:19	1:54	1:44	1:55	1:35
Ordenagailua eta bestelako bitarteko informatikoak erabiltzea	1:18	1:17	1:20	1:20	1:12	1:32
Internet	1:24	1:28	1:17	1:18	1:18	1:18
Hedabideak eta komunikabideak	2:28	2:34	2:22	2:01	2:11	1:50
Jolasak eta prestakuntza	1:07	1:05	1:09	0:58	0:50	1:01
Ikuskizunetan bertaratzea	1:56	2:01	1:52	1:56	1:57	1:55
Jolasak	1:46	1:56	1:32	1:20	1:28	1:08
Zaletasun artistikoak eta beste hainbat	1:42	1:50	1:28	1:32	1:57	1:06
Jarduerarik ez	1:11	1:05	1:17	0:55	0:50	1:00
Bizitza soziala						
Harrerak eta irteerak	2:05	2:10	1:55	2:48	2:56	2:36
Elkarrizketak	1:15	1:15	1:15	1:14	1:21	1:07
Parte-hartze erlijiosoa	1:01	1:00	1:01	1:26	1:18	1:33
Parte-hartze zibila, desinteresatua eta laguntzak	1:21	1:36	0:57	1:54	1:47	2:19
Antolakuntza-esparruko lan desinteresatua	2:29	2:29	2:29	2:37	2:26	2:51
Antolakuntzaren bidezko lana	1:13	0:37	1:17	0:50	0:50	0:50

ITURRIA: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2003.

TEKNOLOGIA BERRIAK

5.2

Azken urteetan pixkanaka-pixkanaka hedatu dira Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (IKTak aurrerantzean) gure eguneroko bizitzan. Pertsona gazteek errazago onartu dituzte eta naturaltasun handiagoarekin barne hartu dituzte eta erabiltzen dituzte bitarteko berri horiek beren eguneroko bizitzan. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak gai horri buruzko azterketa bat egin zuen 2003an "Gazteen Argazkiak, 6. zk." eta azterketaren xede 15-29 urte arteko biztanleak izan ziren. Azterketa horren arabera, eta mota horretako berrikuntzek sortzen duten ikusminari buruz galdetzean, EAEko gazteek interes handia agertu dute zientziaren eta teknologiaren garapenaren inguruan: horien artetik %68k adierazi dute interesa/interes handia dutela horrelako gaietan. Interes handiagoa azaldu dute gizonak (%72) emakumeek baino (%64). Ildo horretan, bereziki azpimarragarria da teknologia berrietan inolako interesik agertu ez duten emakumeen portzentajeak, oso baxua izanik ere, gizonena gainditzen duela (%9 eta %5 hurrenez hurren).

5.4. TAULA Zientzia eta teknologiaren esparruetako berrikuntzen aurrean agertutako interesa. Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Interes handia	18	15	21
Nahikoa interes	50	49	51
Interes txikia	25	26	23
Interesik ez	7	9	5
ED/EE	1	1	1
GUZTIRA	100	100	100

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

Teknologia berrien behar-mailaren balorazioa aldatu egiten da aztertzen diren bitartekoen arabera. Horrela, ordenagailu pertsonalak lortzen du baloraziorik altuena: %74ek oso beharrezkotzat jotzen dute eta portzentaje hori ez da aldatzen emakumea zein gizona izateagatik. Halaber, Interneti buruz galdetzean oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa dela adierazi dute askok, eta emakumeek hiru puntutan gainditu dituzte gizonak, hain zuzen: %64, %61en parean. Inkestan parte hartu duten bi sexueta pertsonen %57k adierazi dutenez, posta elektronikoa beharrezkoa/oso beharrezkoa da. Era berean, gehienek ustez telefono mugikorra beharrezkoa/oso beharrezkoa da (%56); ildo horretan, emakumeak dira beharrezkoagotzat jotzen dutenak (%61), gizonen artean %52 direlarik. Beste muturrean, gizonen %47k uste dute telefono mugikorra ez dela bat ere beharrezkoa eta gauza bera uste dute emakumeen %39k.

[— Gizonak emakumeek baino interes handiagoa agertu dute teknologia berriekiko.
— Ez da sexuen arabera desberdintasunik antzeman IKTen
behar eta erabilerari dagokionez.]

Bestalde, telebistako kanal digitalak, oro har, ez dira beharrezkotzat jotzen, galdetutakoen %87k uste baitute ez direla bat ere beharrezkoak. Beste hainbat teknologiei buruz galdetzean, halaber, gehiengoak uste du ez direla bat ere beharrezkoak (hari edo fax bidezko telebistak, esate baterako). Azkenik, DVDari buruz galdetzean, bi sexueta biztanleek (%84) adierazi dute ez direla bat ere beharrezkoak. Aipatutako datu guztiak kontuan hartuta esan daiteke gazteen ikuspegitik askoz ere erabilgarriagoak eta beharrezkoagoak direla informatikarekin erlazionatutako bitartekoak (ordenagailua, internet eta posta elektronikoa) eta telefoniako bitartekoak; gainerako bitartekoei dagokienez, ez dituzte beharrezkotzat jo, ez baitiete erabilgarritasun praktikorik aurkitzen (faxes, adibidez, lanarekin lotuta agertzen da), edo garestiegiak direlako eta ezarpen eskasa dutelako (telebista digitala edo hari bidezkoa). Horrez gain, salbuespenak salbuespen, antzeko iritzia agertu dute emakumeek eta gizonak teknologia berriei buruz galdetzean.

5.5. TAULA Teknologia berrien beharra sexuaren arabera. Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
TELEFONO MUGIKORRA			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	56	52	61
Behar gutxi	26	26	26
Beharrik ez	18	21	13
ED/EE	0	0	0
TBko KANAL DIGITALAK			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	12	13	12
Behar gutxi	36	37	33
Beharrik ez	52	50	54
ED/EE	0	0	1
ORDENAGAILU PERTSONALA			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	74	74	74
Behar gutxi	12	11	13
Beharrik ez	14	15	13
ED/EE	0	0	0
INTERNETEO KONEXIOA			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	63	61	64
Behar gutxi	15	15	16
Beharrik ez	21	23	19
ED/EE	1	1	0
DVDa			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	16	18	13
Behar gutxi	35	34	37
Beharrik ez	49	48	49
ED/EE	0	0	0
HARI BIDEZKO TELEBISTA			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	16	14	18
Behar gutxi	33	34	33
Beharrik ez	50	52	48
ED/EE	1	0	1
FAXA			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	21	20	22
Behar gutxi	27	24	30
Beharrik ez	51	55	46
ED/EE	1	0	2
POSTA ELEKTRONIKOA			
Oso beharrezkoa/nahiko beharrezkoa	57	56	57
Behar gutxi	16	16	16
Beharrik ez	27	27	26
ED/EE	0	0	1
	100	100	100

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

Gazteek interneti ematen dioten erabilerari dagokionez, enplegua bilatzea nabarmentzen da (%78ren kasuan); eta hori gauza logikoa da kontuan hartzen badugu bizi duten bizitzaren unea edo garaia. Portzentajea altuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (%81 emakumeak %75 gizonak). Bestalde, galdetutako gazte gehienek adierazi dutenez, internet oso erabilgarria da bidaiak prestatzeko eta kudeatzeko orduan, edo prentsa irakurtzeko edo administrazioko zerbitzuak kontsultatzeko. Lehenengo kasuan pareko emaitzak lortu dira sexuen arabera (%75), baina administrazioko kontsultei dagokionez, gehiago dira emakumeak, baina prentsaren irakurketari dagokionez, aitzitik, gehiago dira gizonak. Bi sexuetakoz gazteek adierazitakoaren arabera, oso erabilera eskasa du internetek esparru politikoarekin erlazionatutako kontsultak egiteko (%17). Amaitzeko, bereziki azpimarragarria da gizonen %24k bakarrik (emakumeen %40) egokitzen jo dutela internet bidez museoetako bildumak ikusteko aukera.

5.6. TAULA Interneten erabileren gaineko interesa, sexuaren arabera. Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Museoetan arte-bildumak ikustea	32	40	24
Esparru politikoarekin harremana, eztabaida politikoetan parte hartzea	17	14	20
Zuzeneko ikastaroa edo prestakuntza jasotzea (on-line)	64	70	58
Osasun-arazo bati buruzko iritzi medikua kontsultatzea	59	63	56
Administrazioko zerbitzuak kontsultatzea, agiriak lortzea	72	74	70
Eguneroko prentsa, aldizkariak eta beste hainbat argitalpen irakurtzea	70	65	74
Bidaia bat prestatzea: erreserbak, informazioa	75	75	75
Erosketak egitea	34	32	36
Enplegua bilatzea	78	81	75
Bankuko kontuak kudeatzea eta kontsultatzea	53	51	54
	100	100	100

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

6

GAZTEEN JARRERAK ESPARRU PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN

Honako atal honetan, Euskadiko gazteek bi maila erabat desberdinen aurrean agertzen dituzten jarrera eta portaerei buruzko hainbat adierazle barne hartu dira. Alde batetik, gazteen portaera politikoa ezagutuko dugu eta, bestetik, sexualitatearen aurrean duten jarrera. Horrekin guztiarekin lortu nahi da gazteek esparru publikoari (politika) buruz dituzten iritziak ezagutzea eta beren bizitza pribatuarekin erlazionatutako alderdi bati buruz (sexualitatea) duten iritzia ezagutzea.

JARRERA POLITIKOAK

6.1

Datuei erreparatuz, zera esan daiteke: oso gazte gutxik adierazi dute politikagatiko interesa. Eusko Jaurlaritzak 2003an argitaratutako Gazteen argazkiak 6. zk. azterketaren arabera, 15-29 urte arteko pertsonen %43k ez dute interesik agertu gai politikoen inguruan. Gaiaren inguruan egindako azterketa gehienek ondorioekin bat eginenez, gizonen interes handiagoa adierazi dute gai politikoen inguruan: %36k interesa agertu dute eta emakumeen artean %30ek. Alderdi politikoen hurbiltasunari buruz galdetzean, galdetutakoen %3k adierazi dute hurbilekoak direla baina %56k, aitzitik, oso urrunekotzat jo dituzte. Emakumeei galdetuta, gehiago dira urrunekotzat jo dituztenak. Ideologiari buruz galdetzean, pertsona gazteen %38k ez dute erantzunik eman, hain zuzen emakumeen %40 eta gizonen %36. Hala ere, gazte gehienek ideia ezkertiarak dituzte (gizonen %37 eta emakumeen %33).

6.1. TAULA Politikagatiko interesa, alderdi politiko batekiko hurbiltasuna eta joera politiko ezkertiar-eskuindarrak, sexuaren arabera. Portzentaje bertikalak

		GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
ZEIN NEURRITAN INTERESATZEN ZAIZU POLITIKA?				
	Interes handia	8	10	7
	Interes pixka bat	25	26	23
	Interes gehiegi ez	23	24	23
	Interesik ez	43	39	46
	ED/EE	1	1	1
HURBILEKO ALDERDI POLITIKORIK AL DUZU?				
	Oso hurbilekoa	3	4	3
	Nahiko hurbilekoa	8	9	7
	Zerbait hurbilekoa	15	16	15
	Hurbiltasun gutxi	16	18	15
	Hurbiltasunik ez	56	53	59
	ED/EE	1	1	1
IDEOLOGIA ESKUINDARRA ALA EZKERTIARRA, ZEIN DUZU HURBILEKOAGOA?				
	Eskuin muturra	0	0	0
	Eskuindarra	4	4	3
	Zentrokoa-eskuindarra	3	2	3
	Zentrokoa	14	13	14
	Zentrokoa-ezkertierra	6	6	5
	Ezkertierra	35	37	33
	Ezker muturrekoa	1	1	1
	ED/EE	38	36	40

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

Erakunde politikoaren eta sozialen gaineko konfiantza gizartearen jarrera politikoak ezagutzeko adierazle bikaina dira. Orokorrean, gazteak nahiko mesfidati agertzen dira erakunde-motaren arabera; horrela, alderdi politikoak, armada eta eliza dira mesfidantza handien eragiten duten erakundeak: lehenengo bi kasuetan, galdetuta-

koen %15ek bakarrik esan dute konfiantza dutela eta hirugarrenean, berriz, %16k. Hiru kasuetan indize altuagoak lortu dituzte emakumeek. Justizia, Legebiltzarra, te-
lebista, NBE eta prentsak pertsona gazteen heren bat baino gehiagoren konfiantza
dute. Konfiantza-indizea areagotu egiten da sindikatuen eta irratia- kasuan, eta
%70eko indizea gaintitzen da Ertzaintza, GKE eta hezkuntza-sistemari buruz galde-
tzean. Ia kasu guztietan, emakumeek gizonen baino konfiantza handiagoa agertu
dute aipatutako erakundeei buruz galdetzean eta salbuespen bakarra sindikatuak
izan dira. Sexuaren arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira komunikabideei
buruz galdetzean: adibidez, emakumeen %60k irratian konfiantza dutela esan dute
eta %49k prentsan; gizonen kasuan %49 eta %38 dira lortutako portzentajeak, hu-
rrenez hurren.

6.2. TAULA Erakundeeiko konfiantza. Portzentaje bertikalak

		GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA	Konfiantza du	76	74	78
	Ez du konfiantzarik	19	20	19
	ED/EE	5	6	4
ERTZAINZA	Konfiantza du	70	66	73
	Ez du konfiantzarik	23	27	20
	ED/EE	7	7	7
ELIZA	Konfiantza du	26	22	31
	Ez du konfiantzarik	67	72	61
	ED/EE	7	7	8
JUSTIZIA	Konfiantza du	32	31	33
	Ez du konfiantzarik	59	61	55
	ED/EE	9	8	11
PRENTSA	Konfiantza du	43	38	49
	Ez du konfiantzarik	50	56	44
	ED/EE	6	6	7
IRRATIA	Konfiantza du	54	49	60
	Ez du konfiantzarik	40	46	34
	ED/EE	6	5	6

6.2. TAULA Erakundeekiko konfiantza. Portzentaje bertikalak (jarraipena)

		GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
TELEBISTA	Konfiantza du	39	34	45
	Ez du konfiantzarik	55	60	49
	ED/EE	6	5	6
ALDERDI POLITIKOAK	Konfiantza du	11	11	12
	Ez du konfiantzarik	82	83	80
	ED/EE	7	6	8
EUSKO LEGEBILTZARRA	Konfiantza du	36	36	37
	Ez du konfiantzarik	49	54	45
	ED/EE	14	11	18
SINDIKATUAK	Konfiantza du	47	49	44
	Ez du konfiantzarik	37	40	35
	ED/EE	16	11	22
ARMADA	Konfiantza du	14	11	17
	Ez du konfiantzarik	75	83	66
	ED/EE	11	6	17
NAZIO BATUAK	Konfiantza du	42	40	46
	Ez du konfiantzarik	43	50	35
	ED/EE	15	10	20
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK	Konfiantza du	75	76	75
	Ez du konfiantzarik	17	19	16
	ED/EE	7	6	9

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

Emakumeek gizonek baino interes gutxiago badute politikaren inguruan, konfiantza handiagoa agertu dute erakundeei buruz galdetzean.

Gure ingurune politiko-instituzionala osatzen duten herri-administrazioen balorazio-ari erreparatuz, Foru Aldundiek bereganatu dute asetasun-mailarik altuena, batez besteko %66koa: bi puntu gehiago emakumeen kasuan eta bi gutxiago gizonen ka-

suan. Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzaren balorazio positiboa egin dute pertsona gazteen %64k, eta gehiago dira emakume gazteak. Bestalde, Espainiako gobernuak eta Europako Batzordeak ez dute hain balorazio altua lortu; gizonak adierazi dute, zentzu horretan, asetasun-maila baxuena, hain zuzen: %56ren kasuan balorazio negatiboa jaso du Espainiako gobernuak eta %37ren kasuan Europako Batzordeak, eta portzentaje horiek %48 eta %27 dira, hurrenez hurren, emakumeen kasuan.

6.3. TAULA Administrazioarekiko asetasun-maila, sexuaren arabera. Portzentaje bertikalak

		GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
BIZI DEN LEKUKO UDALETXEA	Asetua	64	62	66
	Asetugabea	28	31	25
	ED/EE	8	7	9
FORU ALDUNDIA	Asetua	66	64	68
	Asetugabea	17	20	14
	ED/EE	17	16	18
EUSKO JAURLARITZA	Asetua	64	62	66
	Asetugabea	22	24	20
	ED/EE	14	14	14
ESPAINIAKO GOBERNUA	Asetua	32	29	36
	Asetugabea	53	56	48
	ED/EE	15	14	16
EUROPAKO GOBERNUA (EUOPAR BATASUNA)	Asetua	40	37	43
	Asetugabea	31	36	27
	ED/EE	29	28	30

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

Amaitzeko, Administrazioaren lanaren inguruko balorazioari dagokionez, osasun-esparriak lortu du baloraziorik altuena (%70ek horrela adierazi dute); aitzitik, etxebizitzaren esparriak balorazio txarra lortu du pertsona gazteen erdiaren aldetik, eta parkea izan da gizonak eta emakumeak egindako batez besteko balorazioa. Gazteen

%40k uste dute sexuen arteko berdintasuna lortzeko lan ona egiten dela Administra-
zioa; portzentaje hori %37ra jaisten da emakumeen kasuan eta %43ra iristen da gi-
zonen kasuan.

**6.4. TAULA Administrazioaren esku-hartzearen balorazioa hainba alorretan, sexua-
ren arabera. Portzentaje bertikalak**

		GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
EUSKARA	Ona	52	54	49
	Erdipurdikoa	34	31	36
	Txarra	11	11	11
	ED/EE	3	3	4
OSASUNA	Ona	70	69	70
	Erdipurdikoa	21	21	20
	Txarra	5	5	5
	ED/EE	5	5	5
HEZKUNTZA	Ona	51	47	54
	Erdipurdikoa	36	37	36
	Txarra	10	13	7
	ED/EE	3	3	3
EMAKUMEEN BERDINTASUNA	Ona	40	43	37
	Erdipurdikoa	37	33	43
	Txarra	12	11	13
	ED/EE	10	13	6
GIZARTE ONGIZATEA	Ona	43	46	41
	Erdipurdikoa	36	32	40
	Txarra	13	14	11
	ED/EE	8	8	9
INGURUMENA	Ona	41	40	43
	Erdipurdikoa	37	37	38
	Txarra	14	16	11
	ED/EE	7	7	8
ETXEBIZITZA	Ona	17	17	17
	Erdipurdikoa	28	28	28
	Txarra	49	49	49
	ED/EE	6	6	6

ITURRIA: Gazteen argazkiak 6, Eusko Jaurlaritza, 2003.

Gaur egungo gizartean, esparru politikoan parte hartzeko funtsezko bitartekoak dira elkarreak. Eusko Jaurlaritzak EAEko gazteen asoziazionismoari buruz egindako azterlan batean ikus daitekeenez, irabazi-asmorik gabeko gazte-entitatetan (boluntarioki edo soldatarekin) lan egiten duten pertsona gehienak emakumeak dira: lan ordaindua egiten duten pertsonak (778 guztira) guztizkoaren %64 dira; praktikak egiten dituztenak (131 pertsona) %80 eta, azkenik, soldatarik gabeko lanak egiten dituztenak (25.0000 pertsonatik gora) erdia baino zertxobait gehiago dira (%53). Gazteen asoziazionismoaren baitan, beraz, sexuen arteko desberdintasunak desagertu egiten dira lan boluntarioez ari garenean.

6.5. TAULA Gazte-interesak dituzten entitateen ezaugarriak: langile-mota sexuaren arabera. Portzentaje horizontalak

LANGILE-MOTA	KOP.	% EMAKUMEAK	% GIZONAK
Soldatakoa	778	64	36
Praktiketan	131	80	20
Soldatarik gabekoa	25.653	53	47

ITURRIA: EAEko Gazte Asoziazionismoaren Liburu Zuria, 2003.

**SEXUALITATE-
AREKIKO
JARRERAK**

6.2

Sexualitatea dugu, bestalde, pertsona ororen bizitzako zati bat. Gazteei dagokienez, garrantzitsutzat jo dute gazte gehienek (%57,3), batez ere gizonen artean; horrela, gizonen %26,9k uste dute sexualitatea oso garrantzitsua dela eta gauza bera adiera-

zi dute emakumeen %20,9k. Bestalde, emakumeen %20k ez diote garrantzi handie-
girik ematen sexualitateari; iritzi berekoak dira gizonen %13,5.

**6.6. TAULA Sexualitatearen garrantzia sexuaren arabera (15-29 urte bitarteko gaz-
teak). Portzentaje bertikalak**

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Oso garrantzitsua	24,0	20,9	26,9
Nahiko garrantzitsua	57,3	56,1	58,4
Garrantzi gutxikoa	13,6	15,8	11,5
Garrantzirik ez	3,1	4,2	2,0
ED/EE	2,0	3,0	1,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

ITURRIA: Euskal Gazteria 2000, Eusko Jaurlaritzak.

Sexualitateari buruzko iritzia ezagutzeko, hainbat aldagairekin duen erlazioa hartzen da kontuan. Horrela, Eusko Jaurlaritzak landutako Euskal Gazteria 2000 azterlanaren arabera, sexualitatearekin gehien lotzen den aldagaia bikotea da, nahiz eta sexuaren arabera emandako erantzunak desberdinak izan: gizonen %33,5ek erlazionatzen ditu zuzenean sexualitatea eta bikotea, eta emakumeen artean %22ra jaisten da portzen-
tajea. Bestalde, arreta-neurriak eta maitasuna aipatzen dituzte emakumeen %22k, eta gutxiago dira berdin pentsatzen duten gizonak. Amaitzeko, sexualitatea esatean sexu-egintza ulertzen dute gizonen %11,4k eta emakumeen %6,1ek.

6.7. TAULA Sexuarekin erlazionatutako gaiak, sexuaren arabera (15-29 urte bitarteko gazteak). Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bikotea	27,9	22,0	33,5
Arreta-neurriak	19,1	22,4	16,0
Maitasuna	17,9	22,1	13,8
Desira	10,5	10,8	10,2
Sexu-egintza	8,8	6,1	11,4
Ondo pasatzea	6,6	5,7	7,5

ITURRIA: Euskal Gazteria 2000, Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritzak 17 eta 18 urteko gazteei buruz egindako azterlan batek dioenez, gazteek sexualitateari buruz dituzten ezagutzak nahiko onak dira, eta ez dago ia desberdintasunik mutilek dituzten ezagutzen eta neskek dituztenen artean. Sexualitateari buruzko informazioa lortzeko iturri nagusia lagunak dira (gazteen %37ren kasuan), batez ere nesken artean. Ondoren aipatu dira eskola, komunikabideak eta ama eta aita. Azken iturri horri dagokionez, hots, amak eta aitak, nesken eta mutilen artean alde nabarmena ikus daiteke: nesken %18k aipatzen dituzte sexualitateari buruzko informazio-iturri gisa, baina mutilen artetik %12k bakarrik aipatzen dute. Gainera, lagunak eta eskola dira informazioa lortzeko iturri egokienak; gauzak horrela, argi geratu da gazteen ustez hezkuntza-sistemak modu aktiboagoan eskaini beharko lukeela sexualitateari buruzko informazioa.

6.8. TAULA Sexualitateari buruz norberak dituen ezagutzen balorazioa sexuaren arabera (17 eta 18 urteko gazteak). Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Oso egokiak	28	27	28
Nahiko egokiak	63	64	63
Nahiko desegokiak	6	7	6
Oso desegokiak	0	1	0
ED/EE	2	2	3

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. 1999. *Familian sexualitateari eta HIESari ematen zaion tratamenduari buruzko azterlana 17-18 urteko gazteen artean.*

6.9. TAULA Pertsona gazteek sexualitateari buruzko informazioa lortzeko erabiltzen dituzten iturriak, sexuaren arabera (17 eta 18 urteko gazteak). Portzentaje bertikalak

	GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
Nondik lortzen duzu nagusiki sexualitateari buruzko informazioa?			
Lagunak	37	38	35
Ikastetxea	17	16	17
Komunikabideak	16	15	17
Aita/Ama	15	18	12
Anai-arrebak	5	4	5
Eskola-esparruko elkarriketak/hitzaldiak	2	2	3
Erakundeen prebentzio-kanpainak	4	3	4
Beste hainbat	3	3	3
ED/EE	2	2	4
Zure ustez nork eman beharko lizuke nagusiki sexualitateari buruzko informazioa?			
Lagunak	47	53	39
Ikastetxea	23	21	26
Komunikabideak	9	8	10

6.9. TAULA Pertsona gazteek sexualitateari buruzko informazioa lortzeko erabiltzen dituzten iturriak, sexuaren arabera (17 eta 18 urteko gazteak). Portzentaje bertikalak (jarraipena)

	GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
Aita/Ama	3	2	5
Anai-arrebak	3	3	2
Eskola-esparruko elkarrizketak/hitzaldiak	3	3	3
Erakundeen prebentzio-kanpainak	5	5	6
Beste hainbat	1	0	1
ED/EE	5	4	8

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, 1999. *Familian sexualitateari eta HIESari ematen zaion tratamenduari buruzko azterlana 17-18 urteko gazteen artean.*

Gazteen artean, batez ere nerabezaroan, gertatzen diren nahigabeko haurdunaldiak arazo larri bilakatzen dira haurdun geratzen diren neskontzat. Horren adierazle garbia da urtero haurdunaldiaren borondatezko etendura (HBE) egiten duten 15-19 urte bitarteko nesken kopurua. 2002an Euskadin lortutako datuen arabera, 167 nerabek egin zuten HBE, hau da, egindako HBE guztien %9,26. Nahiko proportzio baxua da estatuan erregistratu denarekin alderatuta (%13,47 guztizkoarekiko); estatuko emaitzen arabera, haurdunaldiaren borondatezko etenduren artetik 10.000 baino gehiago neska nerabeek egindakoak dira.

6.10. TAULA Haurdunaldiaren borondatezko etendurak (HBE) nerabeengan (15-19 urte bitartean) 2002

	GUZTIRA HBE	HBE NERABEAK	HBEEN PORTZENTAJEA NERABEAK
EAE	1.804	167	9,26
Estatua guztira	77.125	10.385	13,47

ITURRIA: Emakumearen Institutua.

Antisorgailuen erabilerari dagokionez, 2001ean Euskadiko unibertsitateko ikasleen artean kondoiaren erabilerari buruzko azterlan bat egin zen. Horren arabera, koitoa egin duten gazte gehienek kondoa erabili zuten lehenengo aldian (%90,1), emakumeen indizea zertxobait altuagoa delarik. Bestalde, azken sexu-harremanari buruz galdetzean, gazteen %77,4k preserbatiboa erabili dutela adierazi dute. Sexuen arteko datuak bereiziz, gehiago dira mutilak neskak baino, hain zuzen: %80,7 eta %74,6 hurrenez hurren.

6.11. TAULA Unibertsitateko gazteek preserbatiboari ematen dioten erabilera. Porzentaje bertikalak

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Preserbatiborik erabili al zenuen zure lehenengo sexu-harremanean?			
- Bai	88,7	91,5	90,1
- Ez	11,3	8,5	9,9
Guztira	100,0	100,0	100,0
Kop.	164	179	343
Preserbatiborik erabili al zenuen zure azken sexu-harremanean?			
- Bai	80,7	74,6	77,4
- Ez	18,4	24,9	21,9
- ED/EE	0,9	0,6	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0
Kop.	132	158	291

ITURRIA: Arrillaga, Arantxa. HIESA plana Osakidetza. 2001. *Unibertsitateko gazteen arteko genero-desberdintasunak preserbatiboa erabiltzeko orduan eta preserbatiboaren aurreko jarrerari dagokienez.*

Preserbatiboaren aurrean gazteek agertzen duten jarrera aztertuz, sexuen arabera desberdintasun nabarmenak daudela ikus daiteke. Horrela, neskak lotsatiago agertzen dira preserbatiboa erosteko orduan: preserbatiboak erosteak "lotsa" ematen duela pentsatzen dutenen artean, %64,6 neskak dira eta %57,3 mutilak. Preserbati-

boak gainean eramaten dituzten pertsonen buruzko iritziari buruz galdetzean, gazte gehienak horren aurka agertu dira. Hala ere, oraindik desberdintasunak ikus daitezke preserbatiboa mutilak eraman edo neskak eraman: mutilen %20k adierazi dute mutil bat kondoi batekin ikustea irudi txarra dela eta portzentaje hori areagotu egiten da (%33,1) kondoiak neskak eramaten badu. Bestalde, gutxiago dira inork kondoi bat eramatea irudi txarrarekin erlazionatzen duten neskak mutilak baino: %12,4k eta %23,4k esan dutenez, ez zaie gustatzen neska edo mutil batek kondoi bat eramatea.

6.12. TAULA Unibertsitateko gazteek kondoiaren aurrean azaltzen dituzten jarrerak. Portzentaje bertikalak

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Lotsa ematen du erosteak			
- Erabat ados	11,8	16,7	14,5
- Nahiko ados	45,5	47,9	46,8
- Nahiko desados	25,8	17,4	21,2
- Erabat desados	14,6	17,0	15,9
- ED/EE	2,2	1,1	1,6
Irudi txarra ematen du mutil batek kondoi bat eramateak			
- Erabat ados	3,4	3,5	3,5
- Nahiko ados	17,4	8,9	12,7
- Nahiko desados	22,5	31,6	27,5
- Erabat desados	47,2	52,1	49,9
- ED/EE	9,6	3,9	6,4
Irudi txarra ematen du neska batek kondoi bat eramateak			
- Erabat ados	11,2	8,9	9,9
- Nahiko ados	21,9	14,5	17,9
- Nahiko desados	25,3	26,2	25,8
- Erabat desados	37,1	44,7	41,3
- ED/EE	4,5	5,7	5,1

6.12. TAULA Unibertsitateko gazteek kondoiaren aurrean azaltzen dituzten jarrerak. Portzentaje bertikalak. (Jarraipena)

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Kondoia erabiltzeak plazera gutxitzen du			
- Erabat ados	18,5	8,5	13,0
- Nahiko ados	29,8	18,8	23,7
- Nahiko desados	19,1	22,7	21,1
- Erabat desados	14,0	26,2	20,8
- ED/EE	18,5	23,8	21,4

ITURRIA: Arrillaga, Arantxa. HIESA plana Osakidetza. 2001. *Unibertsitateko gazteen arteko genero-desberdintasunak preserbatiboa erabiltzeko orduan eta preserbatiboaren aurreko jarrerei dagokienez.*

Amaitzeko, kondoi erabiltzeak plazera gutxitzen ote duen galdetzean erantzun desberdinak lortu dira sexuaren arabera: mutilen %18,5ek ez dute zalantzarik eta baietz diote; nesken artean %8,5ek bakarrik uste du kondoi erabiltzeak plazera gutxitzen duela. Erantzun-bateriako beste muturrean, nesken %26,2k eta mutilen %14k aurka-koa uste dute.

7

**INDARKERIA ETA
BELDURRA**

Emakumeen aurkako indarkeria dugu sexu-bereizketak gizartean eragin duen arazorik larriena. Edozein emakume izan daiteke indarkeriaren biktima, ezaugarri sozialak eta ekonomikoak, adina, eta abar edozein delarik. Hala ere, aipatutako arazoa adierazle kuantitatiboen bitartez aztertzean (beharrezkoa izanik ere), errealitatearen zati txiki bat bakarrik ezin daiteke ezagutu. Horrenbestez, eskura ditugun datuak mugatuta daudela kontuan hartuta, lan honetan Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak 2003ko urteari buruzko informazioan oinarrituta landutako hainbat adierazle islatu dira. Horrela, Herrizaingo Sailaren txostenean biktimizazioaren eta biktimen arteko bereizketa egiten da: lehenengoari dagokionez, indarkeriazko gertaera bat gertatu eta salatu denean erabiltzen da, eta bigarrena, horrelako gertaera bat jasan duten pertsonak multzokatzeko erabiltzen da. Bereizketa horren helburua da pertsona berak (biktimak) jasaten dituen indarkeriazko gertaerak (biktimizazioak) ezagutzea.

2003an 2.379 salaketa aurkeztu ziren EAEn; salaketa horien artean mota orotako delituak eta hutsegiteak barne hartu dira. Emakume gazteek (27 urte baino gutxiago) 586 salaketa aurkeztu zituzten, hau da, guztizkoaren %24,6. Horien artetik 79 adin- txikikoek aurkeztu zituzten. Gertaera-motaren arabera, emakume gazteek jarritako salaketa gehienak lesio-delituak izan ziren (224) eta ondoren familiaren baitan gertatutako tratatu txarrak (200).

7.1. TAULA Emakumeen biktimizazioa gertaera-motaren eta adinaren arabera 2003

GERTAERA MOTA	<12 urte	12-17 urte	18-22 urte	23-27 urte	GUZTIRA
Giza hilketak eta antzekoak	--	--	--	--	0
Lesioak	4	30	71	119	224
Familiaren baitako tratu txarrak	4	24	64	108	200
Lesioak	--	6	7	11	24
Askatasunaren aurkakoak	2	6	39	49	96
Bahiketa	--	--	--	1	1
Mehatxuak	--	5	37	41	83
Hertsapenak	--	1	2	7	10
Ohorearen aurkakoak	--	--	1	--	1
Kalumniak	--	--	1	--	1
Irainak	--	--	--	--	0
DELITUAK GUZTIRA	6	36	111	168	321
Lesio-hutsegitea	--	20	46	54	120
Familiaren baitako tratu txarren hutsegitea	2	7	11	31	51
Lesiorik gabeko tratu txarren hutsegitea	--	1	4	3	8
Bexazio-hutsegitea	--	1	2	32	35
Mehatxu-hutsegitea	--	3	18	28	49
Hertsapen-hutsegitea	--	1	7	12	20
Irain-hutsegitea	--	2	1	9	12
HUTSEGITEAK GUZTIRA	2	35	89	139	265
DELITUAK ETA HUTSEGITEAK GUZTIRA	8	71	200	307	586
ADIN GUZTIAK					2.379

ITURRIA: Herrizaingo Saila.

Salaketen datuak emakume salatzaileen datuekin alderatuz ikus daiteke gehiago di-rela biktimizazioak biktima-kopurua baino, hau da, guztira 411 emakume gaztek 586 salaketa jarri zituzten, hortaz, kasuen artetik 175etan pertsona berberak salaketa bat baino gehiago jarri du.

7.2. TAULA Emakumeen biktimizazioak ezkontidearen indarkeria edo antzekoa dela eta, gertaera-motaren eta adinaren arabera. 2003

GERTAERA MOTA	<12 urte	12-17 urte	18-22 urte	23-27 urte	GUZTIRA
Giza hilketak eta antzekoak	--	--	--	--	0
Lesioak	--	6	50	108	164
Familiaren baitako tratu txarrak	--	5	43	100	148
Lesioak	--	1	7	8	16
Askatasunaren aurkakoak	--	3	26	39	68
Bahiketa	--	--	--	1	1
Mehatxuak	--	3	26	31	60
Hertsapenak	--	--	--	7	7
Ohorearen aurkakoak	--	--	--	--	0
DELITUAK GUZTIRA	--	9	76	147	232
Lesio-hutsegitea	--	11	27	37	75
Familiaren baitako tratu txarren hutsegitea	--	2	8	26	36
Lesiorik gabeko tratu txarren hutsegitea	--	1	2	2	5
Bexazio-hutsegitea	--	--	1	2	3
Mehatxu-hutsegitea	--	1	12	23	36
Hertsapen-hutsegitea	--	--	6	11	17
Irain-hutsegitea	--	--	1	6	7
HUTSEGITEAK GUZTIRA	--	15	57	107	179
DELITUAK ETA HUTSEGITEAK GUZTIRA	--	24	133	254	411
ADIN GUZTIAK					1.773

ITURRIA: Herrizaingo Saila.

Biktimaren eta erasoaren egilearen arteko harremanari erreparatuz, gehienetan ezkontideak edo horren pareko figurak egin du erasoak (guztien %68,2), nahiz eta familiaren baitako kideek egindako erasoek ere agerpen handia duten (%26,5).

7.3. TAULA Indarkeriaren biktimia diren emakumeak erasotzailearekiko harreman- -motaren eta adinaren arabera. 2003

HARREMANA	<12 urte	12-17 urte	18-22 urte	23-27 urte	GUZTIRA
Ezkontidea edo parekoa	--	23	115	209	347
Adin-txikiko alaba	5	22	--	--	27
Familiako gainerako kideak	2	20	62	51	135
GUZTIRA	7	65	177	260	509
ADIN GUZTIAK					2.027

ITURRIA: Herrizaingo Saila.

2003an emakumeen sexu-askatasunaren aurka 176 delitu gertatu ziren, hau da, adin-tarte guztiak hartuta %64,2. Mota horretako delituekin erlazionatuta gehien egiten diren salaketak dira: sexu-erasoagatiko salaketak (89 kasu), sexu-abusua (49 kasu) eta exhibizionismoa eta probokazioa (29 kasu). Familiaren baitan gertatzen den indarkeriarekin ez bezala, emakume gazteek pairatzen dute, batez ere, aipatutako indarkeria-mota.

7.4. TAULA Emakumeen biktimizazioak sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, gertaera-motaren eta adinaren arabera. 2003

GETAERA MOTA	<12 urte	12-17 urte	18-22 urte	23-27 urte	GUZTIRA
Sexu-erasoa	1	18	36	34	89
Sexu-abusua	8	10	16	15	49
Sexu-jazarpena	--	--	1	2	3
Sexu-exhibizionismoa eta -probokazioa	9	20	--	--	29
Adingabekoen galbideratzea	4	--	--	--	4
Prostituzioa	--	--	1	1	2
GUZTIRA	22	48	54	52	176
ADIN GUZTIAK					274


ITURRIA: Herrizaingo Saila.

Indarkeria, emakumeen bizitzan eragin zuzena duen errealitate bat izateaz gain, gizartean hedatuta dagoen sentimendua da eta bereziki eragiten eta mehatxatzen ditu emakumeak. Esate baterako, gizarteko pertsona orok izan dezake beldurra egunero-ko makina bat alderditan, baina beldur hori bereziki azpimarragarria izaten da emakumeen artean. Emakume gazteen (15 eta 29 urte) laurden batek aitortu dute gaue-
tan kaletik bakarrik joateko beldurra, gazteek sarritan egin ohi dutena; adin bereko gizonek, berriz, ez dute beldurrik adierazi (%96). Emaizta horiei erreparatuz, garbi geratzen da beldurrarekin lotutako esanahi subjektibo, indibidual eta besterenezinez haraindi, beldurrak sarritan baldintzatzen dituela neska gazteek hiri-espazioetan mugitzeko aukerak.

7.5. TAULA Gauetan kaletik ibiltzeko beldurra (15-29 urte bitarteko gazteak). Por-
tzentaje bertikalak

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bai	14,2	25,6	3,3
Ez	84,5	72,6	96,0
ED/EE	1,3	1,8	0,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

ITURRIA: Euskal Gazteria 2000, Eusko Jaurlaritza.



— Emakumeek sexu-askatasunaren aurkako delitu gehiago jasaten dituzte.
— Nesken laurden bat beldur da gaue-
tan kaletik ibiltzeko.

8

OSASUNAREN GAINEKO ARRISKUAK

Gazteek bizi duten bizi-etapa kontuan hartuta, gazteek beren osasunaren gainean duten pertzepzioa biztanleriak bere osotasunean duena baino positiboagoa da. Osasun Sailak landutako Osasun Inkestan barne hartutako datuen arabera, azken bost urteotan hobetu egin da pertzepzio hori. Zentzu horretan, gizonen balorazioa, eskuarki, positiboagoa izaten da. Horrela, osasun oso ona dutela uste duten emakume gazteak %25,7 dira eta gizonak, berriz, %34,4.

8.1. TAULA Gazteek duten osasunaren pertzepzioa (16-24 urte) sexuaren arabera. Portzentaje horizontalak. 1997-2002


	OSO ONA		ONA		NORMALA		TXARRA		OSO TXARRA	
	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002
GUZTIRA	15,0	15,5	45,0	47,2	32,7	30,0	6,6	6,8	0,7	0,6
Gazteak	26,8	30,1	50,3	47,0	20,1	21,4	2,8	1,3	-	0,2
EMAKUMEAK										
Guztira	13,8	14,1	45,2	45,8	34,0	31,5	6,2	7,9	0,8	0,7
Gazteak	23,6	25,7	50,9	46,1	22,1	26,7	3,4	1,3	-	0,3
GIZONAK										
Guztira	16,2	17,0	44,9	48,6	31,3	28,3	7,1	5,5	0,6	0,5
Gazteak	29,8	34,4	49,7	47,9	18,2	16,4	2,3	1,2	-	0,2

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.

Bizi-ohitura osasungarriei dagokienez, kirola dugu faktore garrantzitsuenetako bat. Datuen arabera, indize nahiko baxuak lortu dira biztanleria bere osotasunean hartuta eta gazteria bakarrik hartuta; gainera, gero eta kirol gutxiago egiten dela baieztatu daiteke azken urteotako datuei erreparatuz. Sexuen arabera desberdintasunak nabarmen geratu dira. Kategoria aktiboenetan gizonak erregistratu dituzte portzentaje altuagoak: 16-24 urte bitarteko mutilen %16,9 sartzen da kategoria oso aktiboan eta neskek, berriz, %6,2 dira. Egoneko jarrera, berriz, sarriagotan gertatzen da nes-

ken artean: horien %66,4k adierazi dute egoneko jarrera dutela; mutilen artetik %46,9 izan dira, hau da, ia 20 puntuko aldea.

8.2. TAULA Ariketa fisikoa gazteengan (16-24 urte) sexuaren arabera. 1997-2002

		EGONEKO JARRERA		TARTEKOA		AKTIBOA		OSO AKTIBOA	
		1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002
 GUZTIRA		56,9	64,6	19,0	16,9	14,8	13,0	9,3	7,3
	Gazteak	53,0	56,4	16,9	18,9	15,0	10,3	15,1	11,7
 EMAKUMEAK									
	Guztira	60,5	68,7	19,7	17,0	13,4	9,2	6,3	5,1
	Gazteak	63,1	66,4	17,8	19,1	10,4	8,3	8,7	6,2
GIZONAK									
	Guztira	52,9	60,2	18,2	16,9	16,3	13,4	12,6	9,5
	Gazteak	43,6	46,9	16,0	18,7	19,3	17,5	21,1	16,9

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.

Alkoholaren kontsumoarekin erlazionatutako adierazleak aztertuz, gizonen artean emakumeen artean baino agerpen handiagoa duen ohitura soziala dela ikus daiteke. Horrela, kontsumo gutxienetik gehienerako eskala batean, emakumeen %12,8 eta gizonen %10,8 edaten ez duten pertsonak dira. Emakumeen ia erdiak adierazi dute noizean behinka edaten dutela alkohola; eta hurrengo kategorian, hots, edale neurritsuen kategorian, aurkituko dugu gizonen portzentajerik altuena. Beste muturrean, asko edaten duten pertsonak eta gehiegi edaten duten pertsonak daude: gizonen %6,8k eta emakumeen %4,3k osatzen dute multzo hori.

8.3. TAULA Alkoholaren kontsumoa gazteengan (16-24 urte) sexuaren arabera. Portzentaje horizontalak. 1997-2002

	EZ DU EDATEN		EDALE OHIA		NOIZEAN BEHINKA EDATEN DU		EDALE NEURRITSUA		ASKO EDATEN DU		GEHIEGI EDATEN DU	
	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002
 GUZTIRA	14,1	13,3	3,6	3,4	35,3	39,0	35,5	34,0	7,9	7,4	3,6	2,8
Gazteak	9,1	11,8	2,6	1,9	38,9	41,9	44,1	38,9	3,5	3,5	1,7	2,0
EMAKUMEAK												
Guztira	21,2	21,3	1,4	2,1	45,2	46,3	26,0	23,5	4,9	4,9	1,2	1,7
Gazteak	8,0	12,8	3,9	1,9	43,7	48,4	40,5	32,7	2,3	2,1	1,7	2,2
GIZONAK												
Guztira	6,3	4,9	5,9	4,8	24,5	31,2	45,8	45,2	11,3	10,0	6,3	4,0
Gazteak	10,1	10,8	1,4	2,0	34,4	35,7	47,5	44,7	4,9	4,9	1,7	1,9

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.

Azken urteotan, aitzitik, tabakoaren kontsumoa berdindu egin da gizon eta emakume gazteen artean: emakumeen %28,1ek erretzen dute eta gizonen %33,1ek. Erretzen ez duten pertsonen kategorian bi sexuetako kideen %60 sartzen dira. Hala ere, erretzeari utzi dioten pertsonen artean desberdintasunak bereiz daitezke: nesken %6,8k adierazi dute erretzaile ohiak direla eta mutilen artetik %3,7k esan dute gauza bera.



8.4. TAULA Tabakoaren kontsumoa gazteengan (16-24 urte) sexuaren arabera (%). 1997-2002

	EZ DU ERRETZEN		ERRETZAILE OHIA		NOIZEAN BEHINKAKO ERRETZAILEA		ERRETZAILEA	
	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002
GUZTIRA	52,6	54,9	13,9	15,2	4,5	3,9	29,1	26,1
Gazteak	56,1	62,2	5,1	5,2	6,0	4,0	32,8	28,6
EMAKUMEAK								
Guztira	64,6	65,8	8,6	10,2	3,4	2,9	23,4	21,1
Gazteak	56,9	61,7	4,4	6,8	6,1	3,4	32,6	28,1
GIZONAK								
Guztira	39,6	43,3	19,6	20,4	5,6	4,9	35,2	31,4
Gazteak	55,3	62,6	5,6	3,7	6,0	4,5	33,1	29,2

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritz. Osasun Inkesta.

- Mutilek osasunaren pertzepzio hobea dute.
 - Neskek kirol gutxiago egiten dute.
 - Gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago edaten dute.
 - Neskek eta mutilek neurri berean erretzen dute.

Amaitzeko, osasunaren gainerako arriskuen atalean laneko istripuei buruzko datuak barne hartu dira. Pertsona gazteen istripu-kopurua laneko istripu guztien ia erdia da. Bestelako gizarte-testuingurutatik hartutako datuekin bat eginez, laneko istripu gehiago izaten dituzte gizonak (40.671 kasu eta 8.241 emakumeek). Mailarik larrienean, 2003an 66 gizon eta 2 emakume hil ziren EAEn.

8.5. TAULA Laneko istripu-kopurua adinaren eta sexuaren arabera. Datu absolutuak eta portzentaje bertikalak, 2003

	HERIOTZA	LARRIA	ARINA	GUZTIRA	%
EMAKUMEAK					
16-25 urte	0	2	1.049	1.051	12,8
26-35 urte	2	19	2.782	2.803	34,0
Guztira 16-35	2	21	3.831	3.854	46,8
Guztira Emakumeak	2	48	8.191	8.241	100,0
GIZONAK					
16- 25 urte	1	30	5.312	5.343	13,1
26-35 urte	17	87	13.287	13.391	32,9
Guztira 16-35	18	117	18.599	18.734	46,0
Guztira Gizonak	66	383	40.222	40.671	100,0

ITURRIA: Osalan. Ez dira "in itinere" istripuak eta gaixoberritzeak kontuan hartu.